

Joxemi Zumalabe
(1950-1993)

herrigintzari
eskainitako
bizitza




- **Euskalduntzea** Azkoitiartutako bi pakistandarren bizipenak
- **Frankismoa** Demetrio Lesmes, Melitón Manzanasen mezularia
- **Antonio Cancelo**, Eroskiren sortzaileetako «Arrasateko kooperatibismoaren ezaugarri bat isilean iragan ohi da: konpromiso bateratua»
- **Europako monarkiak** Krisialdi betean, errepublika sekula baino tentagarriago
- **Aquaponics** Jordaniako emakume beduinoak basamortuan barazkiak hazten ari dira



argia


www.argia.com/multimedia

bertsio digitaletik harago
argi berri bat sarean




Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.



Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpiztituluekin.



Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak. Izan kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak eta abar.



Azaleko irudia:
JOXEMI ZUMALABE
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko urtarrilaren 13a, 2.352. zenbakia

ASTEKO GAIA

EUROPAKO MONARKIAK Bizkarroien azken erresumak.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 5

PERTSONAIA

ANTONIO CANCELO: «Geratu egin behar dugu, eta pentsatu, galderak egin eta erantzuten saiatu». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

AQUAPONICS Desertuaren erdian arrainak hazten.
ANE IRAZABAL / 15

IRITZIAREN LEIHOA

OBAMA ETA AEB-ETAKO SISTEMA KONTSERBADOREA
ASIER BLAS MENDOZA / 18

TIRO ETA DANBA, HAS DADILA URTEA! KATTALIN MINER / 20
MUSKERRAREN AMETSA CLARA WOLFRAM / 21

KLIMA ALDAKETAREN DOHAKO GAILURRA UNAI PASCUAL / 22
GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Irudia egin. IXIAR ROZAS / 20

BERTSO BERRIAK Hitzen ekonomian.
IÑIGO LEGORBURU ARREGI / 21

ERDIKO KAIERA

JOXEMI ZUMALABE Orain gurekin ez zauden arren.
GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 23

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 30

MUSIKA OLATZ KORTA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Ekintzetan ekintza. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 33

OSASUNA JABIER AGIRRE / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

FRANKISMOA Manzanas-Lesmes konexioa argitu digu
Marcelo Usabiagak. AITOR AZURKI / 37

EUSKALDUNTZEN Tanveer eta Saifullah, Azkoitian euskara ikasten. IURE EIZAGIRRE / 40

GENERO INDARKERIA Indiako erreforma ekonomiko patriarkalek ere hil dute Amanat. URKO APAOLAZA AVILA / 42

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 43

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IURETA AZKUNE / 43

NET HURBIL Brenniz 1985, 2013... Zenbat urte behar da atomoa amatatzeko? PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

ZUMETAren lan-grafiko originala

ARGIArentzat egina

Jose Luis Zumeta egileak eskuz sinatutakoa



Lehen ~~160~~€

Orain!

99€

- Edizio limitatua
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 500x400 mm.

EUROPAKO MONARKIAK

Bizkarroien azken erresumak

Egun hamar monarkia daude indarrean Europan. Botere politikoa galduta ere, herritarrek oraindik garesti ordaintzen dituzte errege-familiak, eta krisialdi betean, errepublika sekula baino tentagarriagoa da. XX. mendean abolututako monarkiei begiratu diegu, XXI. mendean abolutuko direnen itzaropenez.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |



Nikolas II.a Errusiakoa eta bere familia. Tsarrak 1917an abdikatu zuen, baina hala ere sobietar iraultzaileek familia osoa hil zuten 1918an. Handik aurrera, Europako sistema monarkikoak abolitzerakoan ez zituzten errege-familiako kideak hilko. Eta Frantzia gillotinatik abiatutako bidea hor amaitu zen. Azken bi abolizioak plebiszitu bidez erabaki ziren.

XX. MENDEAREN HASIERAN, Erresuma Batuko Viktoria I.a erregina (1819-1901) hil zenean, monarkiak Europako mapa ia osoa estaltzen zuen. Soilik hiru errepublika zeuden orduan kontinentean: Frantzia, Suitza eta San Marino-ko estatu koskorra. XX. mendea amaitzean hamar monarkia baino ez ziren geratzen (gaur egun indarrean dauden berberak): Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Espainia, Herbehereak, Liechtenstein, Luxenburgo, Monako, Norvegia eta Suedia.

Portugalgoa izan zen XX. mendean erori zen lehen monarkia. Zenbait eskandalu politiko eta finantzario medio, eta kolonietan jasandako porrotek bultzatuta, monarkia portugaldarren prestigioak nabarmen egin zuen behera XIX. mendearen azken urteetan. 1908ko otsailaren lehenean, errepublikazaleek Karlos I.a erregea eta printze erregegaia hil zituzten Lisboa kaleetan. Erregearen bigarren seme Manuel II.ak hartu zuen tronua orduan. 1910eko urriaren 4a bitartean erreinatu zuen,

EUROPAKO MONARKIAK

CASAREAL.ES



Franco hil eta bi egunera, 1975eko azaroaren 22an Juan Karlos I.a Espainiako errege izendatu zuten. Borboiek bi aldiz galdu dute Espainiako tronua, eta bitan berreskuratu.

iraultzak errepublika aldarrikatu eta erregea Ingalaterrara ihes egitera behartu zuen arte.

Lehen Mundu Gerra errepublikarra

Gerra Handiak eman zien ordurarteko kolperik handiena errege familia europarrei. 1918an Errusia, Alemania, Austria, Finlandia, Estonia, Letonia, Lituania, Montenegro... errepublika bihurtu ziren.

Frantziako edo Portugalgo iraultza errepublikazaleetan bezala, sobietar iraultzaileek ere monarkia zirt edo zart ezabatu zuten, errege familiako kideak hilez. XIX. mendearen amaieran erregimen tsarista nahiko ahuldua zegoen berez. 1904-1905ean Japoniaren aurkako porrotak tsarraren arazoak areagotu zituen, eta Lehen Mundu Gerrak herritarrengan eragindako sufrimenduak kitoa eman zion Romanov dinastiari. 1917ko martxoan iraultzak tsarra abdikatzera behartu zuen, baina hurrengo urtean familiako kide guztiak tiroz hil zituzten, badaezpada —eta hala ere, Anastasia printzesa bizirik zegoeneko mitoak bizirik iraun du urte askotan—.

Ezkerrean, Gillen II.a, alemaniar inperioko azken kaiserra. Eskuinean, Hunberto II.a Italiakoa Monarkia-Errepublika erreferendumean bozkatzeko, 1946ko ekainean.

Zenbait herrialdetan batasun nazionalaren sinbolo moduan erabili izan dituzte, nazionalismo arazo konplexuak dituzten estatuetan

Alemaniar ere Gerra Handiak ekarri zuen errepublika. Alemaniar Inperioa 1871n sortu zen, Prusiaren hegemoniapean, eta lau hamarkadatan munduko potentzia nagusietakoa izan. Baina gerra galtzeak iraultza ekarri zuen, eta iraultzak Gillen II.a kaiserraren abdikazioa. Haren familiak Hohenzollern etxeak Erdi Arotik ordurarte erreinatu zuen Brandenburg-Prusian. Eta erregimen inperiala desagiteak ez zion soilik kaiserrari eragin; inperioko 22 erregek, duke handik, dukek eta printzek galdu zuten tronua 1918an.

Espainiako Borboi tematiak

Frantziako Borboiek burua galtzeko joera dutela dirudi. Luis XVI.ak gillotinan galdu zuen, eta Frantziako monarkiazale apurantzat haren oinordeko izan beharko lukeen Cadizko eta Anjouko duke Alfontso eski istripu batean, 1793an. Espainiako Borboiek, aldiz, itzultzeko joera dute. Espainiako Borboiak dira tronua bi aldiz galdu eta bitan berreskuratu duten bakarrak. Espainiako Lehen Errepublika 1873an aldarrikatu zen, baina hurrengo urtean Alfontso XII.a Borboikoak jantzi zuen koroa. 1931n aldarrikatu zen errepublika bigarrenez. Alfontso XIII.a abdikatu gabe joan zen erbestera. Franco hil eta gero, ustezko demokraziarako bidean, Espainian monarkia berrezarri zen, eta diktadoreak oinordeko izendatutako Juan Karlos jarri zuten tronuan.

Eta berriro gerra...

Bigarren Mundu Gerrak ere uholde errepublikazalea ekarri zuen Europara, Lehenak baino modu apalagoan egin arren. Gerra amaitzean

CLAUDIO OLIVERIO



1976AN HERBEHEREETAKO BERNHARD PRINTZEAK (Beatrix I.a egungo erreginaren aitak) 1,1 milioi dolarreko komisioa jaso omen zuen herrialde horretako aireko indarrak Lockheed konpainiaren hegazkinak erosiko zituela ziurtatzearen truke. Haren emazte eta orduko erregina Juliana I.ak abdikatzeak mehatxua bota zuen eta hala lortu zuen senarra ez epaitzea eta eskandalua isilaraztea.

Alboko erresuman, Alberto II.a Belgikakoaren seme Laurentek piztu zuen eskandalua. Etxean egindako lanengatik 15.000 euro ordaindu behar zituen eta faktura Errege Armadari sartzen saiatu zen –urtero Estatuak ordaintzen dion 300.000 euroko diru saria ez da nahikoa, nonbait–. Aitak publikoki barkamena eskatu zuen eta, horri esker, epaileek ezikusiarena egin zuten.

A black and white photograph of a man, likely a politician, wearing a dark suit, a checkered shirt, and a dark tie with a small pattern. He is wearing dark aviator sunglasses and has a cigar in his mouth, which is held by his right hand. A white flower is pinned to his lapel. The background is blurred, showing a crowd of people.

Herbehereetako Bernhard printzeari (1911-2004) milioi dolarretik gorako komisioa ordaindu zion Lockheed hegazkin enpresak.

Azken eskandalu zantzua Eskandinaviatik etorri da. Berriki, *Aftonbladet* egunkari suediarrek Chris O'Neill enpresaburua izan du jomuga. Suediako Magdalena printzesaren senargaia Noster Capital enpresaren jabe da, eta egunkariaren arabera, enpresaren egoitzak Kaiman uharteetako eta Delawareko paradisu fiskaletan daude, zergak saihestu ahal izateko.

Urdangarin eta enparauak sagar ustel bakanak direla sal-tzen ahalegintzen diren arren, eskandalu hauek guztiak ice-bergaren tontorra baino ez direla dirudi, eta izozmendia-ren zatirik handiena ezkutuan gordetzen dutela lege immuni-tatearen eta mendeetan arpila-tzen metatu duten esperien-tziaren laguntzaz.



**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.


Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.











**BIZKAIA
BIZIA**

Tronurik gabeko printzesen bizkarroikeria: Irene Greziakoa

HERRIALDE BATEKO MONARKIA ABOLITZEA ez du esan nahi errege familiak pribilegio guztiak galtzen dituenik. Aitzitik, haien arteko odol loturak medio, oraindik indarrean dauden gorteetan parasitatzeko aukera izan ohi dute. Horren adibide da Irene Greziakoa eta Danimarkakoa, Konstantino II.a Greziako errege kargugabetuaren arreba, Sofia Espainiakoaren ahizpa. Eta adibide gisa aukeratu dugu, hain zuzen, prentsak Irene deskribatzeko erabili ohi dituen adjektiboengatik: “desberdina”, “errebeldea”, “karitatetsua”, “hippy”...

Schleswig-Holstein-Sonderburg-Glücksburg etxeko printzesa 1967an joan zen erbestera, familiarekin batera, 1993an 900.000 euro jaso zituen “kalte-ordainetan”, Europako Giza Eskubideen Gorteak errege familiak Grezian zituen ondasunak bahitu izana legez kanpokoa izan zela erabaki zuenean. Kopuru horren zati bat musikari gazteentzako bekatarat bideratu zuen; obra on hori behintzat onartuko diogu, Irene “desberdin” egiten duten beste daturen baten faltan.

Mundo en Armonía fundazioaren sortzaile eta presidente, erakunde horren izenean inoizko proiektu



IVAN MACKINOVICH

Irene Greziakoa 1942an jaio zen Lurmutur Hirian. 1981etik aurrera Madrilgo Zarzuela Jauregian bizi da, Espainiako errege familiaren egoitzan, musutruk.

tu tamalgarrienetakoa abiatu zuen. Indian egonaldi luzeak egin ohi ditu eta, hala, bertako kultura asko maite eta ederki ezagutzen omen du. Omen. Herrialde horretako elikadura arazoek sentiberatuta, Indiara esne behiak bidaltzea erabaki zuen. Baina esne kuoten araudia medio, Europar Batasunak behiak bizi-rik esportatzea debekatu zion fundazioari. Eta horrenbestez, behiak sakratuak diren herrialdera hildako animalia andana bidali zuen printzesa solidarioak. Gutxienez fundazioaren egoitza lortzen ez zuen diru galerarik izan. Proiektu iraingarria kudeatzeko Alfonso Escámez Banco central Hispanoko presidente ohiak bulego bat utzi zion –Escámez “erregearen bankaria” esaten zioten–.

Etxebizitzan ere Irenek ez du gastu handirik, jauregi batean bizi arren. 1981ean ama hil zitzaionetik Madrilgo Zarzuelan bizi da, ahizparekin batera, alokairurik ordaindu gabe –edo, hobe esanda, herritarrek ordainduta–. Eta Espainian legalki inolako titulurik ez badagokio ere, praktikan “Bero-rrer Errege Gorentasuna” tratamendua ematen zaio printzesa “xumeari”.

Islandia, Jugoslavia eta Albania monarkiatik errepublikara igaro ziren, baita Italia ere.

Italia 1861ean izendatu zuten erresuma ofizialki, Saboiako etxeak penintsulako lurraldeak bateratu zituenean. Benito Mussoliniren diktadurak (1922-1943) instituzio monarkikoa errespetatu zuen, baina Bigarren Mundu Gerrako porrota zama handiegia izan zen koroaren prestigioarentzat. Dinastia salbatzeko azken ahaleginean, 1900dik errege izandako Viktor Manuel III.ak Hunberto II.a semearen alde abdikatu zuen 1946ko maiatzaren 9an. Ekainaren 13an, herritar gehienek monarkiaren aurka bozkatu ondoren, Hunberto II.ak Italiatik alde egin zuen.

XX. mendean erori zen azken erregimen monarkikoa Greziakoa izan zen. 1967ko abenduan batzorde militar batek Konstantino II.a herrialdea uztera behartu zuen. Batzordeak plebiszitu batera deitu zituen

XX. mendean erori zen azken erregimen monarkikoa Greziakoa izan zen. Konstantino II.a herrialdea uztera behartu ostean, herritarrek monarkiaren aurka bozkatu zuten 1973an

herritarrak 1973an, eta hauek monarkiaren aurka bozkatu zuten. Errege-familiak bost urte zeramatzan erbestean, baina orduantxe aldarrikatu zen errepublika Grezian.

Errepublika lortzeko formula

Esan bezala, Europan hamar monarkiek iraun dute gaurdaino (horietatik hiru eragin gutxiko printzerri txikiak badira ere: Liechtestein, Luxenburgo eta Monako). Hamar herrialde horiek monarkia demokratikotzat jotzen dute beren sistema, monarkia eta demokrazia guz-



Iragan urrian ospatu zen Europako azken errege ezkontza. Luxenburgoko printze-printzesak ezkondu ziren, eta Europako errege familia guztiak bildu ziren aitzakia horrekin. Xehetasun guztiak *couché* paperean argitaratu ziren ondorengo egunetan. Espainiako *iHola!* aldizkariak ezkongaien eta Europako zenbait printzesen argazkiak ipini zituen azalean. Titularraren azpian testu hau ipini zuten: "Tiara, bitxi eta burugainekoen desfile harrigarria, printzesen bilkura bikainean". Krisiak herritarrek gogor jotzen dituen honetan, ez al da iraingarria?

tiz bateraezinak direla ahaztuta. Monarkia, definizioz, instituzio erabat antidemokratikoa da, egungo errege-erreginen funtzioa geroz eta lausoagoa izan arren. Monarkia absolutisten garaia aspaldi pasa zen Europan, eta errege-erreginen botere politikoa murriztuz joan da. Zenbait herrialdetan batasun nazionalaren sinbolo moduan erabili nahi izan dituzte monarkak, nazionalismo arazo konplexuak dituzten estatuetan, bereziki: Espainia, Erresuma Batua, Belgika... baina helburua betetzen dutenik ezin esan. Bestela, ordezkari diplomatiko edo protokolo figura hutsera mugatzen da monarkien funtzioa. Eta ezer gutxi egiteko, oso garesti ateratzen dira.

Atzera begira, monarkia abolitzeko formula nahiko sinplea behin eta berriro errepikatu dela ikus daiteke: herritarren sufrimenduak (gerrak, krisialdiak...) eta monarken luxu eta pribilegio abusuak monarkia, definizioz, antidemokratikoa izateaz gain, luxuen eta pribilegioen abusua ere bada) bat egiten dutenean errepublika ate joka dator. Hala gertatu zen Frantziako Iraultzan: uza txarrek eta kudeaketa kaxkarrak gosea eta sufrimendua ekarri zieten herritarrei, Versailleseko gortean gehiegikeria nagusi zen artean. Eta egun antzeko egoeran egon gaitezke: krisialdi ekonomikotik ezin irten dabilatzala, herritarrek instituzio anakroniko, absurdu, garestia

Monarkia abolitzeko formula nahiko sinplea behin eta berriro errepikatu da: herritarren sufrimenduak eta monarken pribilegio abusuak bat egiten dutenean errepublika ate joka dator

ordaindu behar dute. Eta errege-erreginei kontuak eskatzen hasi dira.

Joan den udan *The Washington Post* egunkariak Europako monarkiak gogor kritikatu zituen. Eta datu interesgarriak eman zituen errege-familiek nolako dirutza xahutzen duten jakiteko. Egunkari estatubatuarraren arabera, Herbehereetako monarkia 48,5 milioi dolar kostatzen da urtean, eta Erresuma Batukoa 47 milioi. Zifra ofizialek diote Espainiako errege-familia mantentzea 11 eta 12,3 milioi dolar artean kostatzen zaigula, besteak beste, Hego Euskal Herriko herritarroi. Baina *The Washington Post*ek zalantzan jartzen du kopurua. Errege-familiaren gastuak beste sail batzuetara bideratzen direla dio, hala nola Defentsa Ministeriora edo goi karguen segurtasunerako aurrekontura.

Non dago amildegia?

Beraz, badirudi egungo egoerak aboliziotik gertuago jar ditzakeela Europako azken monarkiak. Baina, amildegitik zer distantziara daude? Espainiakoa, adibidez, modu arriskutsuan hurbiltzen ari da azkenaldian, Noos auziari, erregearen osasun arazoei edo Botswanako elefanteei esker. Erresuma Batukoari aldiz, badirudi iazko errege ezkontzak eta Kate Middletonen haurdunaldiak arnasa eman diotela; prentsa arrosa monarkiaren aliatu fidela da.

Azken 40 urteetan ez da monarkiarik abolitu Europan. Guillotinarekin hasi zena, erreferendum bidez erabaki da azken aldietan. Datozen urteetan beste koroaren bat erortzen ikusiko al dugu? Eta zer formula erabiliko da azken bultzadatzat emateko? ■



ANTONIO CANCELO

«Geratu egin behar dugu, eta pentsatu, galderak egin eta erantzuten saiatu»

Fagor, Irizar, Edesa, Consum, Orbea, Euskadiko Kutxa... Kooperatiba mugimendua. “Humanismoa lanean”, “kooperatibek mundu hobea eraikitzen dute”. Hainbat urtez Antonio Cancelok gidatu zuen Eroski, gidatu zuen Mondragon Taldea. Canceloren balioak dira erakundeena. Eta alderantziz.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

...

Joan den hamar urte honetan, erretretan sartu ondoren, bestelako bizitza egin dut, guztiz eraberritua.

“Erretretan sartua... guztiz eraberritua”. Ez da egunero entzuten duguna.

Niretzat ez da jarraipena besterik, proiektua aldaturik. Ez dut duela hamar urte proiektu izan dudana ukatuko. Pentsatu ere ez. Gogoangarria zait, bai maila indibidualean, bai kolektiboan. Baina 65 urte betetzen direnean, uztea dagokigu. Nik galdera horixe egin nion neure buruari: “Hemendik atzera, zer?”. Eta nik, beti planifikatzen bizi izan naizen honek, horixe egin nuen, plana egin.

Eta?

Eta? Ezer ez, ez dela bihirik ere bete! Tira, denbora librea izatea, horixe bete da. “Donejakue Bidea egin behar diat!”, nion esana neure buruari. Ez nuen egin. “Sukalkintzan ikasi behar diat!”, ez dut ikasi... Izan ere, hainbat jende etorri zitzaidan, ezagutzen nituen batzuk, ezezagunak zitzaizkidan beste batzuk, nire laguntza, babes, aholku eske. “Hik bahun plan bat, baina laguntza eske etorri zaizkik. Zer egin behar duk? Bada, plana aldatu, nire bizitza gobernatu duen xedeari lotu!”. Eta horixe egin nuen.

Zein duzu xede hori?

Galdera batek, eta haren erantzunak, gidatu dute beti nire bizitza: “Zer egin behar dut? Gizarteari baliagarrien zaiona”.

Non ditu sustraiak galdera-erantzun joko horrek?

Kristautasunean ditut sustraiak, haurretarik. Gazte nintzela, soldadutzan bertan, Kristautasun ikastaroak egin nituen. Bizitzari, transzendentziari eta gisako gaiei buruzko gogoeta. Barru-barrutik astindu ninduen gogoeta horrek eta, harrezkero, nire bizitza gidatu du. Adierazpidea aldatu da, lehen errituak indar handia zuen, orain ez, nire baitan ere, baina sentimendua hor da. Eta hor, ni, eta gizarteari baliagarrien zaiona egiteko borondatea. Nirekiko, gizakiari ikaragarri kostatzen zaio bizitzak zer esan nahi duen onartzea. Ez dakigu nondik gatozen ez nora goazen, baina badakigu hemen garela. Eta hemen garen bitartean, zer? Galdera horri erantzuten asmatzen dugunean, ez gabilta gaizki...

NORTASUN AGIRIA

Antonio Cancelo (Puebla Sanabria, Zamora, Espainia, 1936) Eroskiren sortzaileetakoa, Mondragon Taldearen lehendakari izana. 1960ko hamarkadaren hasieran heldu zen Eibarra, familia lagun. 1967an gerente ari zen bertako Juan XXIII kooperatiban eta Eroski sortu zuten 1970ean. Eroski Taldeko zuzendari izan zen hogeita bost urtez eta ondoren, Mondragon Taldekoa 1995ean, erretretan sartu artean. Humanismoak gidatzen du beraren bizia, hurkoari lagundu nahiak, eta, era batera zein bestera, horretan ari da oraindik.



ANTONIO CANCELO

Gogoeta hori soldadutzan piztea ere! Horrek ere badu bere ertza. Agindua gora, zurruta behera, festa eta parranda eta barrabaskeria nagusi direnean, argia egin zitzaizun zuri.

Nik soldadutza dohain ikasi ahal izateko ostatua izan nuen. Horixe. Gurean ez genuen diru-baliabiderik. Nik, aldiz, ikasi egin nahi nuen. Zernahi, baina ikasi. Horretarako, hirian behar zen, eta hirian egoteko modu bakarra, soldadutzara boluntario joatea izan nuen. Dohain ikasi ahal izateko ostatua. Soldadu ari nintzela, fakultatera joan ahal izateko baimena lortu nuen, Valladoliden [Espainia]. Medikuntza fakultatean izan nintzen, eta Eri-zaintza ikasi.

Zure soldadutza.

Nire lagunena ez bezalakoa. Ukuilura eskatu nuen, eta onartu zidaten. Han, zaldien ondoan bazen kamaina bat, hantxe egiten nuen lo. Bertan nengoela, libreago nintzen, ez nuen ordu-tegia zuzen bete behar, eta ikasteko modua izan nuen. Soldadutzaz ari eta pesteak esaten ditu jendeak, asto beltzarenak eta bi, baina nik sekula ere ez nuen han bezain ondo jan.

Puebla Sanabrian [Zamora, Espainia] jaio zinen 1936an. “Gerla urte, gezur urte” zioen gurean Fermin Irigarai *Larrekok*. Gerla urte, gezur urte, gose urte...

Gosea, bai. Latza ohi da gerra, eta bereziki latza izan zen gure familian... Puebla Sanabrian iragan nituen lehen urteak. Gero, Lubianera [Zamora] joan ginen. Ondoren, burdinbidea amaitu zutenean, Mota del Marquesera [Valladolid] aldatu zen gure aita—mediku praktikante baitzen—, eta harekin gu. Erraztasunik ez zen izan. Gure aita bederatzi senidetan zaharrena zen. Aitona, mediku, gazterik hil zen. Gure aitak, korrika eta presaka estudiatu behar izan zuen zer edo zer, eta praktikante egin zen. Maitea zuen medikuntza, maitea zuenez. Beti ikasten hura! Erran delako Mota del Marques horretan, berriz, gorabeherak izan zituen, herriko medikua zozoa baino ergelago baitzen. Goxo eta leun esanda. Garai hartan, urdaiazpikoak opari eginez irabazi izan zituen batek baino gehiagok titulu eta agiriak. Horretan aurrera egin dugu, behintzat. Kar, kar, kar.

Jendea

“Lurralde batean, bertako bizilagunak ardura zaizkit. Euskal Herrian gertatu naiz, eta bertako herritarrei laguntzen saiatu naiz. Katalunian, Andaluzian, Bruselan... izan banintz, berdin egingo nukeen. Mendiak altu, edo hondartzak zabal, jendea da lehenengo. Horrexek mugitu nau nire bizialdian, jendeak, jendeari on egin nahiak”.

Horretan, bederen.

Herri hartako medikuak, ez baitzekien, ezegitekoak egin ohi zituen. Gure aita haren okerrak zuzentzen ahalegintzen zen. Medikuek ezin zuen horrelakorik eraman. Ez zuen menpekoaren irakaspenik onartzen. Ondorioa, ez zigula bakean bizitzen utzi. Ez naiz horretan luzatuko, baina ezkutatu ere ez dut egiten.

Nola eragin zion zuen aitari herri hartako medikuaren jokabideak? Nola zuen amari?

Aitari min handia egin zion. Ikaragarria izan zen. Errudun sentitu zen, oso latza izan zen. Amak ahal zuena egin zuen. Austeritate ikaragarria hazi ginen. Bada, kinka hartan ginen nik ikasketak amaitu nituenean. Ondoko herri-ira joan nintzen, Pedrosa del Reyra [Valladolid]. Huraxe nire lehen lana, ordaindua. Dirurik ez genuen, bistan da. Hiru hilabeterik behin kobratzen genuen orduan, eta, bitartean, Pedrosako apaizak 500 pezeta aurreratu zizkidan. Etxetxo bat hartu errentan, arrebata etorrazazi eta, austeritate gorrienan, soldata jaso bitarteko hiru hilabeteak iraun genituen. Bitartean, garbi ikusi nuen gurasoak Mota del Marquesetik atera behar nituela, han ez zutela atarramendu onik izango. Herria uztera behartu nituen, eta horixe da hitza, behartu. Ordurako, gure aitak antzinatasun handia zuen, hainbat puntu zituen, eta beraz, lekualdatze-lehiaketara jo eta herri handiago batera joateko aukera hobe zina. Horrela heldu zen aita Eibarrera, eta harekin batera, familia osoa. Horrela izan gintuzun Euskal Herrian. Azare hutsa!

Austeritatea esan duzu. Austeritateak agindu du zure bizitzan.

Bai, eta agintzen du oraindik. Maria Jesus emazteak eta biok horixe uste dugu, alegia, gure gizarteak duen gaitza—ekonomia krisia, esaterako—kudeaketa txarrari zor zaiola, agintari eta politikarien eginari, baina, horri ez ezik, baita hiritarron jokamoldeari ere. Denok parte hartu dugu zaldiko-maldiko horretan. Itxuragabe zorpetu gara, dirua izan arte erosi beharrean. Hortaz, austeritatea ez da neurri txarra. Orain baino lehen ere!

Eibarrera etorri zineten, baina ez, zuzen, garai-ko migrazio-oldearekin batera.

Ez, hemen gertatu ginen, egoera latz batetik ihesi. Lau senide ginen, eta Gaztelako herririka batean ez genuen gerorik. Gurasoak hona behartu nituenean, amak baldintza bat jarri zidan: “Konforme, joango gara, baina zu gurekin etorriko zara”. *Quid pro quo!*

Konpromisorik ez duzu, gaur egun...

Ez, ez dut. Esaterako, bankuak salbatzea ona dela esaten dut, neurria batere popularra ez

bada ere. Banketxeetako zuzendariek, eta beste jende askok, irabazten dutenaren kontra nago. Dena dela, zenbat irabazten dute banketxeek? Kudeatzen duten diruaren %0.5. Eta, aldiz, jendeari galdetu eta usteko du %50 irabazten dutela. Gutxieneko analisia, zorrotza, behar da, aurreiritzirik gabekoa. Gaur egun hori, eta beste zenbait egia, esateko moduan nago. Lehen, aldiz, kontu handiagoa izan behar nuen, bozeramaile nintzen, enpresa ez zen ni.

Enpresa ez zen zu. Usteko nuen Antonio Canceloren balioak Eroskirenak, MCCrenak zirela. Eta alderantziz, nahi baduzu.

Garai batean, oso gogoeta sakona eragin zidan horrek. Uste dut identifikazio maila handia zegoela, ez %100ekoa, baina handia. Balioen transmisioan pisu handia izan nuen, ez bainintzen, besterik gabe, kudeatzaile huts, lider ere bai. Eta alde izugarria da kudeatzaile izan, ala lider. Liderra ez du inork aukeratzen. Inguruko jendeak huraxe hartzen du gidari, onartzen zaituzte, frogarik ere gabe.

Fedea, konfiantza dira hor.

Giltza da konfiantza, zeinahi proiektutan ere. Konfiantza izateko egiazkotasuna behar da, den bezala azaldu behar du pertsonak, predikatzen duena praktikatzan du. Esaten duzuna eta egiten duzuna ez badatoz bat, kito da diskurtsoa, ez du baliorik. “Saiatu egin behar dugu” baldin badiozu, zu zeu saiatu eta gero esan behar duzu. Jendeak eredia ikusten duenean, orduan bai, joko du hortik. Eroskiren kasuan hortik asko zegoen.

Eta Mondragon Taldean?

Gutxiago. Eroskiren kasuan, sortzen ari zenean nintzen ni han, sortzaileetan. Mondragon Taldeari dagokionean, hura abian zen ni sartu nintzeneko.

MCCko buru izan zinen.

Erakundea eginda zegoen, ordea. Nik, izatekotan, bestelako dinamika bat injeztatu nion. Dinamika ezberdin horretan, hainbat dira elementu funtsezkoak. Lehen, jendeak “iluntasuna” uste duenetik irtetea. Gure konpromisoa zein den gizarteari esateko obligazioa dugu. Ondoren, konpromiso horiek betetzen ari garen, ez garen, esango diogu.

Indarrean dira Eroskiren, edo MCCren, sorrerako balioak?

Nahiko sarri planteatzen da galdera, eta askotan, erantzuna pseudonegatiboa du. Hasten dira eta “Tira... Zera... Gizarteak aldatu egin da... Denok aldatu gara...”. Ni askoz ere taxatiboagoa naiz: “Bai, indarrean dira, duda-



rik gabe”. Indarrean dira, instituzionaldu egin direlako... Besterik da nola hautematen dituen bazkideetarik bakoitzak. Hori besterik da.

Kooperatiba eredia esportagarri da? Horra MCC Txinan, Brasilen, AEBetan...

Ez. Badira hainbat arrazoi. Lehenengo, kooperatiba legeak zeharo ezberdinak dira han eta hemen. Bigarren, kooperatiba sortzen duzularik, jabegoa ez da zurea, bazkideena besterik. Zailtasunak mila dira. Halarik ere, kapital elkarteak izanagatik ere, posible da kooperatibaren funtzionamendu eredia inplementatzea.

Munduko lau kornetretako jendea etorri ohi da Arrasatera, Mondragon Taldearen funtzionamendua bertatik bertara ezagutzera.

Bada jakin-mina, bai, baina are gehiago da jakin-min intelektualak, ezer erreproduzitzeko jakin-min praktikoa baino. Begira, Arrasateko kooperatibismoaren ezaugarrietan bada bat

Arrakasta hondamendi

"1967an Eibarko Juan XXIII kooperatibaren gerentzian ari nintzen lanean. Erabateko arrakasta izan genuen. Bada, esan nuen: 'Horrela segitzen badugu, hondamendira goaz. Mundua bestela dabil, eredia aldatu beharrean gaude!'. Gera nintekeen arrakastaren ezta dastatzeko, mozkor-mozkor, enpresa munduan sarri gertatzen denez, baina esan nuen: 'Entitate handiagoko unitateak behar ditugu'. Horrela da Euskadin, Katalunian, Andaluzian, Galizian... Kudeaketa-eredua da giltza".



isilean iragan ohi dena, eta haatik, guztiz erabakigarria, lehenengo kooperatiba sortzen den une beretik: konpromiso bateratua. Gaur egun, orain arte ez bezalako egitura sendoak behar dira kooperatibak, kokatua dagoen tokitik lekora ere lehiatu nahi badu. Bai, toki mailako egitura eta autonomia zaindu behar dira, ez dira galdu behar, baina ekonomia globalak bestelako kudeaketa eskatzen du. Nahitazkoa da kudeaketa eredia aldatzea.

Non da giltza?

Hara, nekazarien kooperatibekin ari naiz orain lanean. Nekazarien kooperatibetan, edo farmazialarrietan, langilea soldatapekoa da. Lan elkartuko kooperatiban, protagonista.

Harrigarri ere bada...

Ez, zenbait printzipioetik koherente izatea da, balio batzuk izatea, lana bera balioa izatea. On Jose Mariagandik [Arizmendiari] hasieratik hona dotoen balioak ditugu: lanaren bidez eraikitzen du pertsonak bere burua, lanaren bidez laguntzen dio gizarteari. Lana da protagonista, ez kontsumoa. Lana bera! Mundu mailan, kooperatibaren kontzeptioak ez du horrelako iraultzarik izan.

Proiektu bati dagokionean, kezka handiagoa dut haren geroa, haren iragana baino. Atzera begira hasten garenean, maldan behera hasten gara. Jende askok iragana goreszteko joera du: "Atzo hobeto ginen gaur baino" dio, baina ez da egia, ikusi besterik ez dago, irakurri besterik ez.

Horixe esan zigun ARGIAko orrialdeotan bertan, udazken atarian, Luis de Pablo musikagileak. Iragana ez da hobeia izan.

Historiara jo besterik ez dugu egin behar. Tira, hura manipulatzera jotzen ez badugu, behintzat, nork bere errotara eraman nahi izaten baititu urak. Garai batean, "globalizazioaren aurkako mugimendua" zabaltzen hasi zen. Benetan ziren globalizazioaren kontra? Nola izan globalizazioaren aitzia kontsignak internet bidez zabaltzen dituen mugi-

Jose Maria

"Jose Mariaren [Arizmendiari] ezaugarriak aztertu eta ez du lider itxurarik. Haren diskurtsoa konplexua zen, abstraktua... Zer transmititzen zuen, orduan? Bizitza eredia: ezer ez zuen nahi bere buruarentzat, jendeak bere gaitasunak gara zitzan zuen helburu, pertsona hazi zitezen lan egin zuen, bere buruarentzat ezer eskatzeke. Inoiz ez zuen kargurik izan".

mendua, sare sozialak baliatuz munduko lau bazterretatik halako leku jakin batean bildu eta manifestazio bateratua egiten duena. Globalizazioaren aurka? "Alter globalizatzailerak" esan izan balute, behintzat! Zeharo alferrak gara.

Pentsatzeari dagokionean, ari zara.

Bai. Hara, gure gizartean ikaragarri zabaldu da ariketa fisikoa. Zoragarri! Baina ariketa mentala ez da hura bezainbeste zabaldu. Eta zuzendaritza munduan, berdin, jendeak ez du pentsatzen, egin beharrekoak betetzen dute haien eguna, haien jarduna.

Geratu egin behar dugu.

Geratu, egunean ordubete besterik ez bada ere. Geratu, eta pentsatu. Galderak egin, eta erantzuten saiatu. Enpresa munduan, adibidez, horrek agintzen du: merkatura zer edo zer ezberdin atera behar duzu. Pentsatzen ez bada, nola atera berririk plazara? Behin eta berriz eta askotan esaten didate zuzendariak: "Egunean egunekoak itota bizi gara". Oker goaz bide horretatik.

Egunean egunekoak.

Baina hori esanagatik ere, gezurra da. Bai, egunean egunekoak itota bizi dira, baina ez beren lana egiten dutelako, ondoko kolaboratzaileena egin nahi dutelako baizik. Jendea saltsa gustatzen zaio. Hantxe, anabasan. Aldiz, pantailaren aurrean jar-tzea, edo paper zuriaren gainean, gogorra da, ez duzulako ezer, sortu behar duzulako. Sortzea da giltza. Nora goaz, sortu ezik? ■



AQUAPONICS

Desertuaren erdian arrainak hazten

2030erako munduko populazioaren erdiak ur falta sufrituko duela diote datuek. Eskasiak mendeen hartu dituen bazterretan, arrainak eta barazkiak sistema berritzaile baten bidez hazi dituzte. Ur gutxirekin eta lurrik gabe.

| ANE IRAZABAL |

Argazkiak: Jones eta Viladomat

JORDANIAKO Wadi Rum desertuko beduinoek doan jasotzen dute ura. Hala erabaki zuen Abdullah II.a erregeak duela bi hamarkada. Urarekin zer egin, ordea? Jordanian inor gutxi mintzo da oraindik ur eskasiaz. Are gutxiago Gobernua. Bertan bizi direnek, ordea, ondo dakite arazo larri bilakatzen ari dela. Zer esanik ez beduinoek. Alta, Wadi Rum urritasunari aurre hartzea erabaki du komunitate beduindar batek. Aquaponics deituriko elikagaien teknika iraunkorra bilakatu da haien eguneroko lan eta ilusio.

Baina zer da zehazki aquaponics sistema? Izatez akuikultura (uretako animalien hazkuntza) eta hidroponia (laborantza ureztatua) batzen dituen diziplina da. Prozesuak erraza dirudi begi-bistan. Urez beteriko tanga batean arrainak sartzen dira eta hodi baten bidez ur hori harri bolkanikoz beteriko beste batera iristen da. Haziak harrietara bota ostean, ongari gisa erabiltzen den arrainen gorotza darama urak. Horrela, hazi desberdinez betetako nahi adina tanke ipini daitezke bata bestearen ondoan. Prozesu guztian zehar ura garbitu egiten da, eta berriz ere arrainez beteriko biltegia itzuli. Dena lurrik gabe.

Hidroponiak ez bezala, aquaponics teknika ekosistemaren oreka errespetatzen du, beraz, bakterioak beharrezkoak dira prozesua burutzeko. “Horregatik, pestizida eta ongari kimikoak saihesten ditugu”, adierazi du sisteman aditu den Philip Jones itsas biologoak. Arrainek haientzako jana eta intsektuak jaten dituzte. Baina eguzkiaren izpietatik salbu egon behar du biltegiak, gainerakoan, algak sortu eta urari beharrezkoak zaizkion elikagaiak xurgatzen dituelako.

Beti bezala, ez dugu ezer berririk asmatu. Hala diote diziplina honetan aditu direnek.



Jerikoko emakume beduindarrek rol aktiboena izan dute teknikaren garapenean, proiektua haien ardurapean egotearaino.



Ezkerreko irudian, Jordaniako Wadi Rum desertuko hotelaren lurrak, eskuineko muturrean ezarri dute aquaponicsa. Ondoko argazkian, Jerikoko emakume beduindarra aquaponicsa konpontzen. Teknikaren emaitza ikus dezakegu hurrengo orrialdean.

Asiako txoko askotako biztanleek, egiptoarrek eta amerikarrek barazkiak eta arrainak biak batera ekoiztu dituzte nekazaritza lantzen hasi zirenetik.

Loraldia

Uraren urritasuna begi-bistakoa den Ekialde Hurbilean bere udaberria bizi du orain aquaponics teknikak. Lasaia bezain geldiezina. Tokiaren arabera desberdintasunak sumatzen dira, alabaina. Israelek ekoizpen komertzialera bideratutako baserri desberdinak ezarri ditu dagoeneko. Palestinan bost proiektu xumeago daude martxan. Kairon berriz, lehen sistemak ikus daitezke eraikin batzuetan.

Jones duela hiru urte hasi zen aquaponicsen munduan murgiltzen, Lorena Viladomat lankidearekin batera. “Palestina arraintzako irrigazio teknikak aztertzen ari ginen eta garapen prozesuan zegoen diziplina berriarekin topo egin genuen”.

Agudo ikasi zuten teknika eta iaz Jerikoko beduinoekin proiektu bat hasteko aukera sortu zitzaion, OXFAM erakundeak emandako diru-laguntzarekin. Sei sistema egin zituzten sei familientzat. “Orain, haien esku dago prozesu osoa”. Jonesen ustez, inork gutxi daki beduinoak beste desertuaren erritmoez eta tenperatura aldaketek. “Sasoiaren arabera landatu beharreko barazki motak aldatzen dituzte”, erantsi du.

Jerikoko emakume beduindarrek rol aktiboa izan dute teknikaren garapenean, proiektua haien ardurapean egotera. “Gizonezkoak Jordan bailarako negutegi edo datil-sail israeldarretan lanean zeuden bitar-

tean, emakumeek sistema osoa garatu dute”, nabarmendu du Jonesek.

Ekialde Hurbilean ez ezik, munduko beste bazter askotan ere goren aldia bizi du aquaponics teknikak. Hiriguneetan, kasu. Barazkiak ekoizteko lurrik behar ez izatea irizten zaio Jonesi arrakastaren funtsa: “Balcoietan, patioetan eta industria-eremu transformatuetan. Aukera zabala eskaintzen du, toki eta klima bakoitzari egokitzen zaizkion arrainak eta landareak aukeratzen badira”. Hilabete pare baten buruan ikus daitezke emaitzak.

Zaila da kritikez salbu geratzea, ordea. Jones kexu da elikagai-industria zuzentzen dutenek diziplina berriaren inguruko irudi okerra zabaldu ohi dutelako. “Merkea da, ur gutxi behar du, eta malgua da oso. Helburua-

ren arabera, sistema txikiak edo handiak, sinpleak edo konplikatuak egin daitezke”. Ekoizpen eta kontsumo sistema berri bat bultzatzeko proiektu aurrendaria dela uste du Jonesek.

Wadi Rum, lehen hazia

Susie Shinaco-k aquaponics sistema bat egin du Wadi Rum bailaran daukan nezakal turis-

moan. “Gu izan ginen putzu bat ustiatzeko baimena jaso genuen azkenak, baina horrek ez digu ura alferrik galtzeko eskubiderik ematen”, nabarmendu du.

Shinacorena ekimen bakarra da Jordanian. Konpromiso pertsonal baten eran hasi zen: “Inguruan bizi diren beduinoekin ikasi dugu basamortuko eremuan bizitzen, eta orain ere haiekin batera ari gara ur eskasiaren aurrean alternatibak bilatzen”.

Barazki organikoak ahalik eta ur gutxienerekin ekoizteko desioak dantzan jarri zuen

Hidroponiak ez bezala, aquaponics teknikak ekosistemaren oreka errespetatzen du, beraz, bakterioak beharrezkoak dira prozesua burutzeko



udan Shinaco. “Interneten ikerketa txiki bat egin, eta bi gaztek Palestinan zeramaten sistema batekin egin nuen topo”. Aquaponics kontzeptua ezezaguna bezain zaila egin zitzaion hasieran. Jones eta Viladomat aholkulari gisa kontratatu zituen, inguruko komunitate beduindarrarekin sistema bat eraiki zezaten.

Proiektua hasi zenetik hona, lehen barazkiak harri bolkanikoen artetik hazi dira. Eta arrainak handitu. “Gure sistematik ateratako lehen entsalada jan dugu gaur”, harro adierazi du Mahmoud izeneko beduinoak. Arrainak

Baserri bat sortu nahi duela dio Shinacok. “Ez dugu sistema komertzial bat nahi. Gure komunitatea ahalik eta buruaskiena izatea da xedea”

dastatzeko denbora gehiago itxaron beharko dute.

Shinacoren asmoa, baina, harago doa. “Zergatik? Aquaponicsak mundu berri bat ireki digulako”. Lehenengo barazkiak mahai gainean jarri eta beduinoekin baserri bat sortu nahi duela aitortu digu. “Ez dugu sistema komertzial bat nahi. Gure komunitatea ahalik eta buruaskiena izatea da xedea”. Baina ez dago oraingoz proiektuan sinesten duen diru emailerik. Jordaniako Gobernua izan da laguntzari uko egin dion lehena.

Aitzitik, etsipenak ez du tokirik Wadi Rumgo txoko honetan: “Ur eskasiaren aurrean gauzak hobetzeko teknologia gure esku dago. Nekazaritzak bide hori jarraitu behar du”, ziur da Shinaco. Irmotasunak ez du iraungipenik. ■



Kalean da urtarrileko



aizu!

- Lakabe: Norbanakoa, komunitatea, natura
- Korrika 18 kultura ere bada
- Fabrikara magia ikastera
- Ai Laket, drogak argitara
- Atzerrian lanean
- Iñigo Cabezafuego arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org



DANI BLANCO

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Obama eta AEBetako sistema kontserbadorea

SAN SEBASTIAN egunean, ohitura den legez, Barack Obamak bigarren agintaldia hasiko du AEBetako presidente bezala. Iragan azaroko hauteskunde presidentzialetan garaile atera zen berriro, baina, 2008ko hauteskundeetan ez bezala, ez du inolako ilusio berezirik piztu munduko txoko desberdinetan. Izan ere, bere lehenengo agintaldiak ez ditu bete sortutako itzaropen gehienak. Nazioarteko harremanetan agertu duen jarrera ez da aurreko presidentearen oso desberdina izan: ohiko aliantzak (NATO eta Israel) eta mehatxuak (Iran, Ipar Korea...) mantendu ditu eta nahi izan duenean nazioarteko legeak ez ditu bete (Osama Bin Ladenen erailketan bezala). Egia da Iraketik tropak atera dituela eta ez duela herrialderik inbaditu (nahiz eta Libia bonbakatu duen), baina nahi izan balu ere, AEB ez zegoen beste okupazio militar bat burutzeko moduan, nahikoa lan eman diote Afganistangoak eta Irakekoak.

Obamak ez du gertutasuna lagun, horregatik, bere bigarren agintaldia aurrerakoiagoa izateko ezinbestekoa izango da herritarren mobilizazioa. Mekanismo honen beharra oso ondo ulertu zuen Rooseveltek, 1930eko hamarkadako krisi ekonomikoari aurre egiteko

Barne politikan, Obamaren lehenengo agintaldiak lagundu egin ditu gizarteko sektore ahulenak, adibidez, osasun segurua populazio guztira zabaltzeko ahaleginarekin. Baina ezkerreko sektore desberdinek azpimarratu dute lortutako aurrera- pausok txikiak izan direla. Ez dute arrazoirik falta ziur asko, nahiz eta horren errua Obamari ezin zaion egotzi zuzenean. Presidenteak bere egitasmoak aurrera eramateko ahal duena egin du. Kontua da lan hori egitea ez dela erraza AEBetan. Sistema politiko estatubatuarra oso konplexua da emaitza kontserbadoreak izan ditzan. Bere

ezaugarri nagusia botere legegilearen, exekutiboaren eta judizialaren arteko banaketa da. Horregatik, gobernu eta botere legegilearen artean ez dago loturarik, kolore batekoa izan daiteke bata eta beste kolore batekoa bestea. Baina hor ez da bukatzen botere sakabanaketa, legegileak bi ganbera simetriko ditu: Ordezkarien ganbera eta Senatua. Lehenengorako bi urtetik behin hautatzen dira ordezkariek eta bigarrenengorako sei urtetarako hautatuak izaten dira senatariak, baina, bi urtean behin ganberaren herena berriztatzen da soilik jarraikortasuna eta moderazioa segurtatzeko.

Beraz, AEBetan politika publikoak errotik aldatu ahal izateko ezinbestekoa da hiru hauteskundetan garaile izatea, eta hala ere, Senaturakoetan herena baino ez denez berriztatzen, garaipen horrek denboran sostengatua izan beharko du lau aktoreetako (Presidente, Ordezkarien ganbera, Senatua eta Auzitegi gorena) batek betoa erabili ez dezan. Bestela, ohiz kanpoko gehiengoak lortu ezean, “amildegi fiskala” bezalako egoerak saihesteko moderaziotik eta moderaziorako negoziazioak gertatzen dira Washingtonen, estatubatuar herritarren etxeetatik urruti.

Herrialde handietan, urruntasunak ematen duen babesetik, politikariek herritarren interesen aurkako erabakiak errazago har ditzakete. Aldiz, eskala txikiko erabakitzeko guneetan zailagoa da, gertutasunak herritarren kontrol demokratikoa errazten du eta hedabide handiek duten eragina txikitzen du. Obamak ez du gertutasuna lagun, horregatik, bere bigarren agintaldia aurrerakoiagoa izateko ezinbestekoa izango da herritarren mobilizazioa. Mekanismo honen beharra oso ondo ulertu zuen Franklin Delano Rooseveltek, 1930eko hamarkadako krisi ekonomikoari aurre egiteko New Deal programa aurrerakoi martxan jarri zuen AEBetako presidenteari. Rooseveltek sindikatu eta ezkerreko erakundeekin batzartu eta hauen proposamenak entzuterakoan esan ohi zien: “Orain atera kanpora eta derrigortu nazazue egitera”. ■





Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA ♦



DANI BLANCO

Tiro eta danba, has dadila urtea!

BA OMEN da italiar esaera zahar bat, non gizon bat ageri den egunero-egunero, santu bati errezatzen: “Mesedez, mesedez, loteria irabazi nahi dut!”. Esae-rak dio, santuak, nazka-nazka eginda, behera begira jarri eta hurrengo erantzuten diola: “Mesedez, mesedez, eros ezazu txartel bat behin-go!”.

Esango nuke, urte berriekin ere antzeko zerbait gertatzen dela. Diot, urte berri bakoitzari, berez urteak horretarako ahalmen naturala balu bezala, denok eskatzen diogula zerbait. Zerbait ona, noski. Egia dena da, ordea, ondoren, guk geuk egin ezean, ezer gutxi gertatzen dela mirakuluz.

Gure etxean, ohitura beste bat da. Gauerdia eta gero, ehizerako eskopetak hartu eta tiro egiten dugu zerura. Ez iezadazue galdetu ohitura nondik datorren, baina azken urteetan, nik neuk ere, erritual horri bere balioa eman diot pixkanaka. Kontua da, urteak emandako kontu txarrei egiten diedala tiro, eta askotan (sinbolikoki, noski), urtea izorratu diguten hainbat kabroiri ere egiten diodala tiro. Nik ere beraz, urte zaharrari txarra uxatzeko eskatzen diot, eta berriari, berez, zerbait ona eskatu.

Aurten, pentsatzen jarri naiz nori egingo diodan tiro. Kabroi asko izan dugu aurten ere, krisi handiak

jota, banketxe, politikari eta matxista askok izorratu nahi izan dute urtea. Ez naiz hemen izenak esaten jarriko, batez ere, tiroka hasten naizen momentuko berotasunaren bat-batekotasunaren xarma ez izorratzearren.

Aurten, pentsatzen jarri naiz nori egingo diodan tiro. Kabroi asko izan dugu aurten ere, krisi handiak jota, banketxe, politikari eta matxista askok izorratu nahi izan dute urtea

Hala ere, gure etxeko ohitura horren terapeutikotasunaren inbidiaz, batek baino gehiagok egin dizkit enkarguak aurten, eta halaxe izango da. Eta hau irakurtzen duzuenarako tiroak jota izango baditut ere, behingoagatik, pentsatu dut, egingo ditudan eta ditugun gauzengatik joko ditudala tiroak airera aurten.

Eskatu didazue, 2013 feminista bat, antikapitalista bat, euskaldunago bat. Eskatu didazue, maitasun apur bat, osasuna, dirua eta lana, eta orgasmo bat edo beste gehiago. Eskatu didazue egiteko tiro gogor

zuengatik, eta gugatik, eta horrelaxe egingo dut.

Baina arrazoi bakarra dut hori dena lasai aldarrikatu eta eskatzeko; izan ere, santuari errezuaz zebilen italiar gizajo hark ez bezala, badakit, egunero, gogotsu arituko garela gure desira guzti horiek 2013an bete daitezen. Ez garela etxean geratuko. Aurten beraz, ez da zuengatik tirorik itsuan joango. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Irudia egin

IRUDIA egin, itxura egin, damu irudia egin. Irudialdatu, antzaldatu. Artista ezagun batek irudiz osatutako egutegi bat prestatu du, keinu ikonoklasta batean bere eskuekin irudiak zulatuz eta itxuraldatuz. Zulatutako irudiz beterikoa egunkaria da. Honakoa dio urtarrileko orrialde zulatuak: “Irudi oro hitzen munduan sortzen da. Ez dago hitzetik bananduta dagoen irudirik, ez dago hitz egiten ez duen hitzik. Hizkuntza irudiak ekoizten jaiotzen da”. Hitzak Georges Didi-Hubermanek dira. Mediatizazioa eta espektakularizazioa dira irudiak desagerrarazteko tresnarik boteretsue-

nak. Bitartekari baten bidez iristen zaizkigu beti irudiak eta horixe da, hain zuzen ere, irudiak itoarazi eta haiek ikusten uzten ez diguna. Itxurakeriaren irudikerian bizi gara. Sutearen ostean ez da deus geratzen, baina sutea gertatu aurreko segundo horretan, keinu ikonoklastaren azken segundo horretan du irudiak, eta ondorioz hitzak eta keinuak ere bai, bere indar gorena, bere potentzia maximoa. Eraikin ofizialtan paratutako artazien debekuarekin gertatu den modura. Desagertu aurreko instant horretan. ■





Clara Wolfram

♦ KAZETARIA

Muskerraren ametsa

NIK AMETS egiten dudan munduan jendea oinutsik ibiltzen da. Epela da, beti, eta gauez tenperatura zertxobait freskatzen bada lagunak bata bestearen ondoan etzaten dira beroa konpartitzeko.

Ez da altzairurik, ez zabor ontziririk, ezta etxe paretarik behar ere. Jateko, basoak eskaintzen dituen fruituak eta landutako landare batzuek baliatzen dira. Ez dago presarik, ez asfatorik, are gutxiago burdinazko ontzi gurpildunik. Ziztu biziaren sentsazioa haizeak soilik ematen du. Ordu-laririk ez dago. Denboraren poderioa zaharren begiradan atzematen da. Erraza suertatzen da umorea, gozamena eta besarkada. Jolasteko ez dago adinik, ezta toki zehatzik ere ez. Inor ez da inorena, eta lurra berea da.

Haurrek egunak ematen dituzte zuhaitzen adarretan dauden muskerrei so. Mugitzen direnean kolorez aldatzen dira. Itsasoaren urdina eta argi-izpi horiaz zipriztindua zena orain suaren gorria hartzen du, tanta berde batzuk tartekatuz. Luzez so egon behar da istantea ikusi ahal izateko, luzez so haurrak, luzez so muskerak, nor ala nor lehenago mugituko denaren zain.

Ni bizi naizen munduan haurrek ez dute astirik zuhaitzei so egoteko. Erritmo bizian bizi da jendea, hori bizitzea baldin bada. Hemen zuhaitzak egon badira, baina

inork ez ditu ikusten. Egunak pantailen aurrean igarotzen ditu jendeak, pantailak etxean, pantailak kalean, pantailak lanean eta kotxean, pantailak sakelan edozein unetan dosia hartu ahal izateko. Loari ere tarte lapurtzen diote pantailak, siestaren orduan animalien dokumentalak ikusten baitira. Jolasteko tarterik egon bada, baina antolatua da eta ordaindu behar da. Batzuek burtsan jolasten dute, beste batzuk oporretara joaten dira jolas toki erraldoietara, eta beste batzuek ez dute jolasten, hipoteka ordaintzeko kezkak gogo guztia kendu baitie. Sentitzeko ere ordaindu egiten da, tristura sentitzeko psikologoari eta poza portu-abenturari. Bizitza zer den ahaztu zaie, eta hala ere bizitza galtzearen beldur bizi dira. Horregatik etengabe aseruaruak ordaintzen dituzte. Nonbait, heriotzaren ondoren bizitzak badu jarraipena txanponetan, eta ideia honek aurreko zeruarena baino lasaitasun gehiago ematen omen die.

Ni bizi naizen munduan muskerrei ere prezioa jarri digute. Orain aluminiozkoak gara, eta kotheen aurrealdean itsatsita gaude. Kotxe marka bihurtu gaituzte, eta denek gure jabe izan nahi dute. Orain, non ezin garen mugitu, ezin garen aldatu, orain, berriro, denak guri so daude. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Iñigo Legorburu Arregi



Doinua: Langile baten semea naiz ni.



Hitzen ekonomian

Banketxeetan egin dituzten zuloen harira bankero-jaunen gainean jarri dugu ikusmira. Justizia dabil malgu indar apurrik ba al du? Haiei eskerrak izango baitu krisiak segida. Kasu bakanetan salbu bankuak ezin du galdu “zor publikoan” irabaziak pribatuak dira.

Gure enpresei egin die krisiak bisita baina batzuen jarrera dugu guztiz hipokrita: Irabazitan aurrera eginagatik topera “neurriak” hartzen dituzte beti ERE-an jarrita... Txikia bada galera langile denak kalera! Lehen bezainbat ez irabaztea baita “defizit”-a.

Enpresariak gurean bizi duten zoria errepikatuz gero ondora, ez da gero broma! Esklabutzarako prestu proposamenak aurkeztu klase ertainak zinez bizi du haustura sakona. Ezin zutena amestu: Langileak euren esku! Esklabutza izen berria da “lan-erreforma”. ■

Mutrikuko Bertso Eskolak 2012-12-21ean banatutako Okelar Sarian bigarren geratu zen sorta. Sorta osorik eta saritutakoa, www.argia.com-en duzu ikusgai.

Unai Pascual

♦ BC3 ZENTROKO IKERLARIA



JOSU TXABARRI

Klima aldaketaren Dohako gailurra

FROGA zientifikoek adierazten dute tenperatura errekorrak hausten jarraitzen dutela, poloetako izotza espero baino bizkorrago urtzen ari dela eta itsas maila hainbat proiektziok aurreikusitakoa baino gehiago goratzen ari dela. Gainera, planeta ez da bilakaera eraginkorrik lortzen ari mende amaieran batez besteko tenperatura globalaren igoera 2 gradu zentigradoren azpitik atxikitzeko xedean. Aurreikuspen zientifikoen arabera, munduko egungo karbono igorpenak geldiarazten ez badira, munduko tenperaturek 4 eta 6 gradu bitartean egingo dute gora. Halaber, zientziak ohartarazi digu berotze globalaren eragin fisikoak berehalakoak direla eta, beraz, arazoari erantzuteko beharra geroz eta larriagoa dela.

Duela aste batzuk, 2012ko azaroaren 26tik abenduaren 8ra bitartean, 195 herrialdeetako ordezkariak Dohan (Qatar) bildu ziren, COP18 delakoan parte hartzeko (Nazio Batuen Erakundeko (NBE) klima aldaketaren inguruko 18. goi bilera). NBEk sustatutako Kyotoko Protokoloa 1997an onartu eta 2005ean jarri zen indarrean 191 herrialdetan, baina 2012ko abenduaren 31n iraungitzekotan zen akordioa eta

Dohako emaitza gorabeheratsuen artean, goi bilerak berrikuntza garrantzitsua ekarri du “galeren eta kalteen” gaia jorratzen hastea adostuz

Dohako gailurrak ataka horri aurre egin behar zion. Horrenbestez, aurreko urteko Durbango bilerari (COP17) jarraiki, Kyoto ondorengo akordio berri baterako bide diplomatikoa zolatzea zen helburua. Kyotoko Protokoloan 37 herrialde industrializatutako EB15ek 2008 eta 2012 bitartean berotegi gasen igorpena, 1990eko igorpenak oinarri hartuta, batez beste %5,2 murrizteko konpromisoa hartu zuten.

Dohako lorpen nagusietakoa Kyotoko protokoloa berreskuratzea izan da, igorpenak murrizteko bigarren konpromiso aldia adostu baitzuten 2013ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartean. Europar Batasuneko (EB) kide guztiek, Australiak, Norvegiak, Suitzak, Islandiak, Kroaziak, Bielorrusiak, Kazakhstanek eta Ukrainak (munduko igorpenen guztizkoaren %15 ingururen erantzule diren herrialdeek) 1990eko igorpen maila batez beste %18 murrizteko konpromisoa hartu dute 2013 eta 2020 urteen artean. Kyotoko kide ziren eta asko kutsatzen duten beste herrialde batzuek, hala nola Kanadak, Errusiak, Japoniak eta Zeelanda

Berriak ez dute onartu bigarren konpromiso hau, eta, halaber, AEBek eta Txinak, munduko bi karbono igorle nagusiek, bigarren konpromiso aldiaren aurkako jarrera garbia hartu dute.

Beste hiru gai garrantzitsuk toki nabarmena izan zuten Dohan, eta horietan arreta jartzea merezi du: (a) zuzentasun printzipioa, (b) klima finantzaren praktika eta (c) negoziazio mahaira ekarritako kontzeptu berria, “galera eta kalteak”.

Zuzentasun printzipioaren arabera, iraganean gehien kutsatu duten herrialdeek erantzukizun proportzionala izan behar lukete klima aldaketak gehien kalte ditzaketen herrialdeei, oro har gutxien garatutako herrialde pobreeni laguntza ematerakoan. Askorentzat printzipio hori ez da negoziagarria, baina herrialde industrializatu gehienentzat, esaterako AEBentzat, printzipioa ez da batere erakargarria barne politikari dagokionez, suspertzen ari diren beste herrialde batzuek, nagusiki Txinak, igorpenak murriztu beharko ez dituzten beldur direlako.

Printzipio horretaz haratago, klima finantzaren gaia negoziazioaren giltzarrietakoa izan da. 2009ko Kopenhageko goi bileran dagoeneko, herrialde garatuek garabidean dauden herrialdeei 100.000 milioi dolar transferitzeko konpromisoa hartu zuten, 2020an abiarazi beharko luketen klima finantzaziorako. Dohan, herrialde garatuek porrot egin dute nabarmen, ez baitute lortu mahai gainean benetako dirurik jartzea edo 2020ko helburura iristeko oinarritzko gidalerorik adostea.


Dohako emaitza gorabeheratsuen artean, goi bilerak berrikuntza garrantzitsua ekarri du “galeren eta kalteen” gaia jorratzen hastea adostuz. Klima aldaketak etorkizunean eragingo dituen galera eta kalte berreskurazineki aurre egiteko garabidean dauden herrialde ahulei laguntzea da xedea. Gai hau funtsezkoa da “galera” eta “kalte” terminoek herrialde askotan lege konnotazioa dutelako, eta, hurrengo goi bileran terminoak nola gauzatzen diren ikusteke dagoen arren, eguraldiaren muturreko gertaerek eragindako kalte-ordainak barne har litzake.

Klimari buruzko negoziazio mahaiaren inguruan hainbeste urtez eserita egon ondoren, aurrerabidea mantsoa da, eta gizarte zibilaren frustrazioa sekula baino handiagoa, mundu osoan ematen ari diren pausoak nahikoa ez direlako, eta ahalegin ikaragarria eskatzen duelako herrialde boteretsuen borondate politikoa mobilizatzeak konpromiso irmoak har ditzaten eta hitzemandakoa bete dezaten. ■



ERDIKO KAIERA

JOXEMI ZUMALABE



AITOR BAYO

Orain gurekin ez zauden arren

Hogei urte joan dira Joxemi Zumalabe Goenaga (Donostia, 1950-10-14 / 1993-01-12) hil zenetik. Gorazarre egin asmoan mahai-inguruak, kultur ekitaldiak eta bestelako omenaldiak antolatu dituzte urtarrileko lehen eta bigarren asteburuan, eta honenbestez, hura izan zena, batzuok sekula ahanzterik izango ez duguna, ekarriko dute gogora: haren eskuzabaltasuna, haren filosofia, haren bultzadaz lortutakoak, haren itzal luze beti presentea.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

DONOSTIAKO familia euskaltzale eta abertzale bateko semea, frankismo garaiko ikastola klandestinoak ezagutu zituen haurra zela, eta aitaren —Jose Migel Zumalabe Mendiburu— eta Karlos Santamariaren ekimenez sortutako Santo Tomas lizeoa, ondoren. Sarritan eskertuko zuen gerora gurasoek egin zioten

mesede hura, giro hartan eskolatu izana hain zuzen, han ernatu baitzitzaion bere bizitza osoko funtsa izango zuena: euskararen, euskal kulturaren, euskal prentsaren eta oro har herrigintzaren aldeko jardun nekaezina. Borroka horretan oinarritu zuen bere biziera, pentsaera, ibilbidea. Martin Ugaldek hitz ezin

Maitasun hutsunea baino handiago

Ipurtargiaren itzal luzea argitaratu zuen Euskaldunon Egunkariak, Joxemi Zumalaberen heriotzaren hamargarren urteurrenean. Iñaki Uriak -2003ko hartan Egunkariako Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria- egin zion hitzaurrea Lorea Agirrek idatzitako liburu hari. Handik hartuak dira hitzok.

(...) JOXEMIK utzitako hutsunea maitasun hutsunea baino handiagoa da ordea. «Aitatxo galdu dute Maddik eta Jonak. Joxemi Ostaizkak eta lagunok. Eta gizon handia euskaldunok», idatzi nuen bera hil eta hurrengo egunean *Egunkarian*. Gizon handia bere isilean. Gizon handia bere apaltasunean. Gizon handia euskalgintzan. Gizon handia herrigintzan. Proiektzio handiko gizon sendoa genuen Joxemi. Agortzen ez zen ideia iturria. Gogoetarako gaitasun aparta, irudimen eta sormen harrigarriak eta horiek guztiak modurik errazenean adierazteko gaitasuna. Adierazpenaren ondoren zetorren ekimena: gu guztiok norabide berean lanean jartzeko abilezia eta abiatutako lanari eusteko adorea. Gogaide, lagun, konplize, burkide, lankide, adiskide, buruzagi... maitale, aita, maketatzaile, txofer, marrazkilari, diseinatzaile, kudeatzaile, enpresa-

ri... Langile eta enpresari. Militantea. Gizon osoa. Nik neuk, esan dezaket ez dudala bera bezalako beste bat topatu. Behin eta berriz harritzen ninduen. Hainbat urtetan hain gertu eta elkarrekin hainbeste ibili ondoren, uste duzu badakizula nolakoa den zure laguna. Ezagutzen dituzula bere erreakzioak,

bere pentsamenduak... badakizula zer esango duen. Ez zen Joxemiren kasua. Bere errekurtsioek, bere gaitasunek Joxemi berri bat osatzea lortzen zuten estualdi bakoitzean. Krisi bakoitzean Joxemi berri eta osoago bat agertzen zitzaigun.

Maite genuen Joxemi. ■



ederragoz azaldu zuen bezala, “euskararekiko maitasun istorio bat” izan zen Joxemi Zumalabarena.

Taldeko gizona zen, eta taldean eman zuen onena, taldekide bakoitzaren nolakotasunak nabarmenduz, elkarlanaren ahalmena balioetsiz, ametsak partekatuz. Eguneroko lanak, proiektu berriak, konspiratzeak oro har, biziara zuten azken eguneraino.

Argieroak

Bereziki hari eta Joxe Mari Ostolazari zor dio ARGIAk honainoko bidea egin izana. Krisirik latzenetik atera zuten Kaputxinoen garaiko *Zeruko Argia* hura, zorra besterik ez zuenean, haren alde inortxok xentimorik ere eman nahi ez zuenean, inguruneak prentsa elebidunaren alde egin eta euskara hutsezko argitalpenari zentzurik ikusten ez zitzaionean.

Eta hark akuilatuta, abiapuntu hartatik bertatik lortu zen ilusioa piztea, behar gorria sentitzea, oztopo eta ezikusi guztien gainetik

Larraitzen, Txindokiko magalean, jarri zitzaion oroitarria.


aurrera begiratzea eta apurka indarrak batzea, euskal prentsan sinetsaraztea eta gizartean proiektatzea, *Euskaldunon Egunkariak* argia ikus zezan. Buru-belarri jardun zuten gainera-koei meriturik kendu gabe, noski.

Handira jo zuen beti Zumalabek. Pack osoa behar zuen, euskararen eta euskal kulturaren mundua bere betean hartuko zuen plangintza orokorra. Hortik beherako ezerekin konformatu gabe, arlo gehientsuenetan jardun zuen, denak bakarrera ekartzeko ahaleginetan.

Euskalgintza, naziogintza eta herri mugimenduak izan zituen pentsamenduaren oinarri. Ezin uler zezakeen euskalgintza naziogintzatik aparte. Ezta, jakina, euskalgintza alde batera uzten duen naziogintza. Arazo linguistikoa eta kulturala naziogintzaren oinarritzko osagaitzat jotzen zituen: “Herri honek nazio bilakatu nahi baldin badu, hizkuntza nazionalen oinarrituriko kultura garatu behar du, eta kultura horretan bere izate nazionala egitura-




"Euskal Herriak OTANI EZ", 1986-03-09.



"Agur t'erd! Hemen gara (berriz)", 1981-10-04.

"Tortura demokrazia espainolaren neurria", 1985-07-07.

Neurri handitako apostua dauka Estatu Espainolak euskaldunokin, eta tortura sistematikoki erabiltzen da. Bere estilo zaharra ahanzi ez duten indar polizialen ohiturak ala kontrainsurgentziak neurri normalizat jotzen dituen metodoak?...



"Andu Lertxundirekin euskal Idazleen elkarteaz", 1982-10-17.

Gauza jakina da Euskal Idazleen Elkartearen burutzekotan dabilzala gure Herriko lumalariak. ARGIA ezin zuen nolanahi ere gertakizun hori pasatzen utzi eta zor zaion begirunea betetzen saiatu da bere lehendakaria den Anjel Lertxundiri mutur aurrean magnetofonoa ipiniz.



"Negozioaketa politikoa: irtenbidea ala ametsa? Hamar urtetako kontakto eta tirabirak", 1986-11-16. Urgentziatzko monografiko bat duzu, aktualitatearen abiadak mugatua, baina eztabaida bere testuinguru historikoan kokatzeko baliagarria.



tu. Eta hori da, finean, euskaldun abertzaleak duen proiektu nazionala; hots, nazio honek bere egitura, bere subiranotasun eta bere kultura nazionala lortzea. Herri bezala. Euskarak nagusitzeko behar dituen bitartekoak euskaraz ez dakitenen aurkako zapalkuntzarik gabe eskuratuz".

Ertz ugari du Joxemi Zumalaberen figurak. Pintore izan nahi zuen. Etxetik transmi-

sioan jasotako nolakotasuna, hori ere. Eta eskua zuen, horretarako ere bazuen. Lehentasunak lehentasun, gurari hura jubilatuko zenerako utzia zuen.

Bere alderdi artistikoaren aleak ekarri nahi izan ditugu orriotara, ARGIA utzi zigun ondare grafiko, ilustratzaile eta azalgile gisa landutako zenbait gai. Haren sormenaren ohorez. Bere senaren maiteminez. ■



1984-07-15.



1984-09-16.



1985-01-20.



1985-06-09.



1980-07-13.

Kaputxinoen Zeruko Argia aldizkaria ARGIA bihurtu zenekoa ilustratzeko eginiko marrazkia.



1981-02-08.

MONDRAGON U.



Josu Landa

Ipurtargiaren itzal luzea

JOXEMI ZUMALABEK 42 urte zituen hil zenean. Nik, 32. Hura hiltzen ari zelarik, eta hil osteko hilabeteetan, pentsamendu bat erabili nuen etengabe buruan: «Bizi beharreko guztiak pasatu ditut neuk; hemen-dik aurrerakoa, propina». Bizpahiru urte kostatu zitzaidan propina gisako bizimodu hura bizitza berri bilakarazten. Nola liteke duela hogeitau urte sentimendu hura hein hartaraino nitaz jabetzea? Eskuar-tean hartu dut 2003an Lorea Agirrek egindako liburu zoragarria, eta bertatik errolatu ahal izan ditut Joxemirekin partekatutako 12 urte haietan burura eramandako makina bat gauza.

Hil-lanturuek jota zen ARGIA zulotik atera. Etorkizuna ei zen prentsa elebidunari borroka ideologikoa egin eta euskara hutsezko prentsari prestigioa eman, praxiaren bitartez batik bat. Itxita zegoen dirulaguntzen bidea zabaldu, eta astekariaren autofinantzaketarako Apika informatika enpresa eta Antza inprimategia sortu. Ilusioa eta konpromisoa kutsatzeko zuen gaitasuna bitarte, elkarrekiko amodioz eta lanerako kapazitateaz gainez egindako taldea osatu. Euskarazko egunkari baten premia eta ahala ikusarazi, eta gauzatze urratsak eman. Garai hartan euskararen inguruan ikusitako kontsentsurik handiena erdietsi. Egunkaria abiarazi.

Aipatu gauzetarik bakar bat ere ezinezkoa zatekeen Joxemi gabe.

Lorea Agirrek ezin hobeki adierazten du bere liburuan, eta hari lapurtuko dizkiot hitzok. «Bazen behin eguzki batek baino argi txikiagoa eginagatik, itzal luzeagoa ematen zuen ipurtargi bat. Joxemik bere aurreikuspen eta analisisetan ez zuela huts egin argi ikusten da orain. Joxemik argia egiten jarraitzen du, eta bere itzala gero eta luzeago agertzen zaigu. [...] Eguzki batek baino argi txikiagoa eginagatik, itzal luzeagoa egiten zuen ipurtargiaren alegia egia bihurtu du Joxemik».

2013an, hogeigarren urteurreneko ekitaldiak prestatzen ari garen honetan, jendearen inplikatu gura eta maitasuna adierazteko desioa barra-barra eta nonahi ikusita, ipurtargiaren itzal hori, laburtu beharrean, luzatu egin dela inpresioa daukat.

Joxemi, kabroi halakoa. Stop. Ni bizi nauk. Stop. Hire proiektu guzti-guztiak bizirik zeudek. Stop. Segituko diagu kontaktuan. ■

CuadraBus


www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com




- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak


Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
 ☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00



1981-03-08.
Euskal Herrian Euskarazekoek Radio Nacional de España sartu eta euskarak jasaten duen bazterketa salatu zuten, komunikatu bat lau haizetara entzuteko moduan irakurrita.



1981-06-07. H hizkiaren auzia zela-eta.



1983-10-02.
Euskal egunkariaren sasoia heldu da. Hiru editorial idatzi zituen Joxemi Zumalabek berak.

argia 2013ko egutegia

ARGIA astekariko pasarteak

- Zientzia
- Deabruaren abokatua
- Denboraren makina
- Txisteak
- Bertsoak

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

ARGIAko eskaintza bereziak

EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari

EGUTEGIA

9€

BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

Salgai
dagoeneko!



Hatza mapa gainean
Pello Lizarralde
Pamiela, 1988.

Sasi eta asuin

JOAN BERRI DEN urte zaharreko liburu onenen artean jarriko nuke, ezbairik gabe, Pello Lizarralderen azkena, *Orbanak*. Soil-sotila, zurruna, intentsua, tentsioz betetako nobela su eztitan ondua. Ondo dio eleberriak western bat filmatzeko ematen duela dioenak. Eta ez da bakarrik azken liburua, aurrekoak ere halakoxeak ditu, *Iragaitzaz* –ilunbistan–, *Larrepetit*, *Un ange passe* –isilaldietan–, *Sargori*; onak. Ez nizkion ezagutzen hasierak, 80koak, baina banuen erreferentzia baliotsua: *E pericoloso sporgersi* lehen nobela aitatu zuen Harkaitz Canok –eta Cano beti da garantia– liburu ahantzien Sautrela hartan. Bilaketa hasi nuen bada. Alferrik. Deskatalogatua. Aurkiezina. Desagertua. Lehen nobela eskuratzeko ezintasunak ekarri ninduen *Hatza mapa gainean* bigarren honetara.

Haria ez du sobera konplexua: ez dakigu nondik, zer, norengandik, baina ihesean dabilena da liburu-konponatzailearen protagonista. Mendian gora, behera, inolako heldulekurik gabe: ez dakigu zer egin duen, zerbait, nor den, non dabilen. Euskal Herrian bai, hori seguru, ez bakarrik “intxaur batzuk, gazta eta ogia” jaten dituelako, ez bada “errosarioa erreza-tzen” entzuten delako. Ekintza ez armatu ez bestelakorik gabea da testua. Ihesa da osoa, sasi eta asuin. Ia ez da agertzen bestelakorik. Soilik neska batek lagunduko dio zereginean; tira, lagundu, hori irakurleak ebatzi beharko du irakurketa bururatu

ondorenean. Beste ezer gutxi, eztatiko mina bizia-gotuko zaiola kontakizunak aurrera egin ahala, irakurleak min hori sentitzeraino.

Eta ez da Lizarraldek pertsonaia bat ihesean jartzen duen lehen aldia. *Orbanak* nabarmendu dugunez, esan, bertako pertsonaia nagusietako bat, menditarra, orbanduna, zordun zaiola *Hatza mapa gainean* honetakoari. Oso zordun. Ez da, deabruak guarda, inondik ere salaketa. Pentsa, erremixaren alde bagaude eta, beti ere, Fermin Muguruza gogotan, zerbait berria aportatzen badu. Eta Branimir Sceanovicen *A boca chea de terra* hura ere gogorazi dit, are, uneren batean, jazartzaileak imajinarioak direla pentsa daitekenean. Oroitzapen ona.

Azken buruan, tanta bat da *Hatza mapa gainean* Lizarralderen obra osoan. Nobela laburtzat hartzen bada ere, ipuin, eta ez oso luzea, baita finean –Lizarralderen lehen ipuin argitaratua, inork ezeztatu ezean–. Zergatik ekarri hartara ipuinxko bat tarte honetara? Bada ez soilik halakoak gomendatzea, euskarri dijital berrieekin eta abar, erabat gaurkoa delako –hala berreskura liteke, luze gabe, *E pericoloso sporgersi* deskatalogatua–. Baizik eta batez ere izan zelako literatura obra ezin interesgarriagoa martxan jarri zuen hastapen hazietako bat. ■

Aritz Galarraga



BETAGARRI



Zorion argiak
Betagarri

Elkar, 2012.
CD bikoitza.

Hogei urte eta gero, ilusioz

20 URTE BETZEAR dagoen talde gasteiztarrek anbizio handiko proiektua kaleratu berri du: *Zorion Argiak*. Disko bikoitz honetan 23 kanta entzun ditzakegu eta gonbidatu ugari hartu dute parte, lagunak denak. Denbora da honelako lan itzelari ilusioz eta ausardiaz heldu ziotela. 2010ean abestiak konposatzen hasi eta etenaldi baten ondoren, abestiak sortuz jarraitu zuten, disko bikoitza osatzeko adina abesti bazutela ohartu ziren arte. Hasiera batean kolaborazio soila egitearen ideia buruan bazebilkiten arren, gonbidatu ugari izateak garrantzi handiagoa hartu zuen gerora.

Estilo ezberdinetako hamaika lagunak ekarriak balio erantsia eman dio disko bikain honi. Hauek dira diskoa handitzera etorri diren lagunak: Obrint Pas talde katalaneko kide Xabi Sarriá, Tonino Caratone 'Kutxi' (Marea), Juan (Soziedad Alkoholika), Iñigo Muguruza, Gari, Francis (Doctor Deseo), Mikel Urdangarin, Virginia de la Casa, Pirritx eta Porrotx, El Drogas. Ahots hauei guztiei Iñakirena batuz, disko erakargarria lortu dute, kolore desberdinetako ahotsak nahastuta, eta nahasezinak diren ahotsak batuta.

Itxaropenez eta baikortasunez beteriko mezuak azaleratu dituzte, bestalde, bizi dugun garai berriari egokitutakoak, ondo landuak. Adibide argienetakoa, *Milaka izar berri* dugu, bideoklipa egiteko aukeratu duten abestia. Etorkizunari aurre egin eta urteetan arrastaka eraman dugun egoera bat ixtera deitzen gaitu. Beste horrenbeste esan liteke diskoari izenburua eman dion *Zorion argiak* kantaz ere, gezurren

erdian murgilduta bizi garen arren, egiaren bila jarraituko dugula aldarrikatzen du.

Ska, ska-rock eta reggae doinuak tartekatuz, oinarri erritmiko sendoa duten abestiak egitea lortzen du Betagarri taldeak. Elkar estudioetan ia hiru hilabete pasa izana ongi nabari da, xehetasun guziak ondo zainduak baitituzte. Grabazio aurreko lan mardula ere ezagun da, batez ere moldaketetan, bereziki Iker bateria-jotzaileak eta Iosu baxu-jotzaileak haizezkoen moldaketetan egindakoak. Ekoizle lanetan konfiantzazko laguna izan dute, taldearen izaera ondo ezagutzen duena eta taldearen soinua zein izango zen argi zuena: Triku Villabella, "8. Betagarrikidea".

Hamarkada pareta beteko duen taldeak ez du galdu ilusiorik, ez eta freskotasunik ere. Euskal Herriko bazter guztiak alderik alde zeharkatu eta gure muge-tatik kanpo salto egiteko aukera izan dute. Urte luze hauetan ehunka kontzertu eskaini dituzte, bai Euskal Herrian, bai Europan baita munduko beste hainbat bazterretan ere. Harrera beroa izan dute besteak beste Japonian, AEBetan, Argentinan, Suitzan edota Alemanian.

Badu meritua taula gainean 20 urtez irauteak. Areago, hainbat kidek osatutako taldea bada. Urteetan lortutako esperientzia eta heldutasunak ematen duen segurtasuna hor dute, baita etorkizunari aurre egin ahal izateko argia. Zorionak. ■

Olatz Korta



Azpizuneko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Hitz gezidunak

IPARRALDEA MUGATUTA- KO DENBORA BITARTEA	BAIZIK 24 ORDUKO TARTEAK	ASKE	SUARI DARIONA PINU MOTA	ZIZARE 1002 ZENBA- KI ERROMA- TARREZ	EMEEN UGATZ ASKI, DEZENTE	DUDARIK GABE, BENETAN AZKENIK
		ALEMANIA- KO HERRITAR RUBIDIOA				
PERTSONAIA- REN ABIZENA NAFARROA- KO HERRIA			LANDARE MOTA, GARO ROENTGEN			
					HITANOA PARE BAT	
DIMAKO AUZOA	NOBELIOA PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA					NOREN ATZIZKIA ERRESUMA
		LERROAK, ERREN- KADAK			KENKETAREN SINBOLOA PERTSONAIA- REN IZENA	ODOL- MASAREN GUTXITZE
EGUZKI DAGO						
	LITROA URRATU ADITZAREN INFINITIBOA				ARANONDOA REN FRUITU AREAGO	
LAMA ZIRRARA- GARRI		BESANGA, ABAR ATZIZKIA	ZILARRAREN IKURRA EMAKUME IZENA	ANPEREA IBAI-ONTZIA, GABARRA	ARRAIOA! RONA	
						MEGA KILOGRAMO
IGARO DEN DENBORA EREMU- TARRA			LEUNTA- SUNEZ TONA			
					XEDEA, BURUA	

Kike Amonarrizen umorea

Katu elebiduna



Cadizko katu bat, nahastuta, okerreko itsasontzian sartu eta Bartzelonako kaian lehorreratu zen.

Montjuïc inguruan zebilela sagu bat ikusi eta bere atzetik abiatu zen korrika... Baina sagua zulo batean ezkutatu zen. Hamar minutu isilik pasa ondoren, katua zaunka hasi zen:

– Zaunk, zaunk, zaunk!

Saguak, zaunka hotsa entzuterakoan, zakurren bat

azaldu zela pentsatu zuen, eta katuak ihes egingo zuela zakurra inguruan sumatu orduko. Orduan, zulotik lasai-lasai atera eta... Ri-rau! Katuak jan egin zuen!

Gosea ase eta gero, katua parkeko zuhaitz baten gerizpean etzan zen, honako pentsamendu hau buruan:

– Bada, egia da etxean esan zidatena! Katalunian, elebiduna ez bazara goseak hil zaitezke!

Soluzioa

A	A	R	E	K	E	N	A	N	E	M	I	G	A
T	I	A	T	Z	E	K	E	N	A	N	E	M	I
H	E	R	R	E	R	I	B	I	K	E	N	A	N
K	E	R	R	E	R	I	B	I	K	E	N	A	N
J	A	R	E	R	E	R	I	B	I	K	E	N	A
B	A	R	E	R	E	R	I	B	I	K	E	N	A
E	A	R	E	R	E	R	I	B	I	K	E	N	A
I	P	E	A	R	E	R	E	R	I	B	I	K	E
E	P	E	A	R	E	R	E	R	I	B	I	K	E



Ekintzetan ekintza

TOLOSAKO BONBERENEA ez da edozein gaztetxe. Beste molde batekoa da. Ez du mota honetako guneari orokorki lotzen zaizkion zenbait ezaugarri eta funtzionamendua ere apartekoa du. Berezitasunak berezitasun, hamabost urte bete ditu, hamabost urte oparo. Asmoz, proiektuz, kontzertuz, ekitaldiz, ikastaroz eta forma guztietako ekintzez jositako ibilbide luzea, altruismoz indartua.

Batzuek ahalegin handirik gabe gogoratuko dute mendea hastearekin batera 'Bonbero'ra –hala deitzen diote gehientsuenek suhiltzaileen egoitza izan zenari–, “instituzioen manipulazioetatik kanpoko gazteentzako espazio autogestionatu eta independentera” heldu aurreko saioak. 1997tik hasita, bizpahiru eraikin okupatu ziren hau baino lehenago, artean euskaltegi zaharra, gaur egun Topic nazioarteko txo-txongilo zentroaren egoitza. Ez zuten inon luze iraun.

Aitzindari izandako saio horiek kontuan hartuta, hamabost urte bete ditu Bonbereneak, eta bost gutxiago, hamar, Bonberenea Ekintzak plataformak. Aitzakia ezin biribilagoa da denboran pausatxo egin eta orain arte burututakoari errepa-soa emateko, bilana jendartean par-

Bonberenea Ekintzak. 2002-2012

Doinuen Hamarkada.

Argitaratzailea: Bonberenea (Tolosa).

Formatua: 2 CD + 2 DVD + tapaki gogorreko liburua.

Salneurria: 20 euro.

tekatzeko. Horren isla dugu 2002-2012 *Doinuen Hamarkada*, bina CD eta DVDz lagunduta datorren multimedia liburua.

Bonberenea Ekintzak ez da kontzertuetarako plataforma hutsa, baina horixe du, zehatz izate aldera, urte osoko jardunik zainduena. Mila kontzertutik gora antolatu dituzte elkartu zirenetik gaurdaino –mila zati hamar, atera kontuak urtean zenbat diren–, eta ikus-entzunezko historia aberats hori dugu argitalpenak ondoen ispiatzeko duena. “Elur bola txiki zena bolatzar bilakatu da”, dio liburuak hitzaurrean, urteen joanean lortu den potentziala eta erreferentzialtasuna adierazteko. Kontzertu mordo horri esker biltzen dute, bestalde, autogestiorako behar izaten dituzten sosa.

Juantxo Arakama Bonbereneako ekintzaile eta musikariaren hitzak

baliatuta, CDak, DVDak eta tapaki gogorreko liburua sortan eskaintzen dituen lan hau asmo “entziklopedikoz” jaio zen, ibilbide osoan egindako guztia xehe-xehe biltzen ahalegindu delako. Besteak beste, lekuko filosofia laburbiltzen duten idatziak, kontzertuen kronologia, beren zigilupean argitaratutako diskoetako abesti bana (guztira 38), bertatik pasatu diren taldeen bideo-klipak, grabazioak, zuzeneko 13 emanaldi, argazkiak, Karlos Osinaga *Txapi* Bonbereneako ekintzaile, musikari eta ekoizleari elkarrizketa...

Bertan aurkituko ditugun taldeak zerrendatzea aski genuke, multimedia lan honek, Tolosaldeak eman dezakeenaz harago, Euskal Herriko musikaren testigantza grafikoa ere badela jabetzeko: Lisabö, Willis Drummond, We are Standard, Napoka Hiria, Humilitate, Deabruak Teilatuetan, Glaukoma, Kuraia, Petti, Eraso, Anestesia, Izaera, Estricalla, Berri Txarrak, Zea Mays, Ama Say, Inoren Ero Ni, Desordutan, Lif...

Arazo bakarra zabalpena du. Tamalez, ez dago nonahi aurkitzerik. ■

**Garbine Ubeda
Goikoetxea**



Digestio hobeak botikarik erabili gabe

SABELEKO HANTURA, haizeak edo bihotzerrea biztanleen %40k jasaten dute, Patologia Digestiboko Elkartearen iritziz. Molestia horiek direla-eta medikuari kontsultatu

gabe antiazidoetara jotzea ez da batere konponbide ona, botika horien abusuak eragin sekundarioak edo albo-ondorioak ekar ditzake eta.

Urdaileko molestiak gogor samarrak baldin badira, onena espezialista batengana joatea izango da, noski, horren atzean egon daitezkeen arazo larriak baztertzeko. Baina, edonola, molestia horiek arintzen hasteko jan-neurri egokia egitea eta aztura osasungarriak jarraitzea baino bide hoberik ez dago.

Bihotzerrea arintzeko aholkuak

Otorduak

Janari minak, otordu oparoek eta koipeek errefluxua, eta horrekin bihotzerrea, eragin dezakete.

- Zuntz gehiago hartzeak, eta gisatuei landare digestiboak (ezkaia, erro-meroa,...) gehitzeak bihotzerrea saihesten laguntzen du.

Edariak

Baztertu edari gasdunak, alkohola edo kafeina dutenak.

- Kamamila bezalako infusioek bihotzerrea arintzen dute zenbait kasutan.

Txikle apur bat

Otorduen ostean batez ere.

- Zure listu-jarioa bikoiztu egingo duzu horrela. Eta listua ezinbestekoa da janarien azidoak neutralizatu eta hestegorria pasatzen laguntzeko.

Lotarakoan

Utzi ordu batzuk afariaren eta oheratzeko orduaren artean.

- Lo zauden bitartean bihotzerrea sentitzen baduzu, altxa gehixeago burua burko pare bat erabiliz, eta etzan zaitez zure ezkerreko alboaren gainean.



WWW.RECETAMELO.COM

Ohitura egokiak

- Murritz gantzak eta gatzak, eta erabili espeziak otorduak maneatzeko. Gantz edo koipeak digeritzeko astun samarrak izaten dira, eta gatzak idorreria eragiten du. Kanela, jengibre, currya edo kuminoa bezalako espeziek, aldiz, astuntasuna eta hantura arintzen dituzte.

- Har itzazu hogeit bat minutu otordu bakoitza egiteko, baina ondo murtzikatuz beti. Azkar eta urduri-tasunez jatea da sabelean haizeak sortzeko arrazoi nagusia.

- Masaje arinak sabelean bost minutuz, otordu nagusien ostean. Era horretan, digestioa eta hesteen hustuketa erraztuko dira, eta zure libratzeko azturek ere hobera egingo dute.

- Saia zaitez arnasketak zure sabela ere mobiliza edo mugi dezan. Horrela oxigeno gehiago iritsiko da urdailera, eta hobeto egingo du lan.

- Yogak digestio-aparatura doan odol-kopurua gehitzen du, eta horrek digestioa bizkortu eta erraztuko du. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Elorrio izan

TXERTO A TARTEKO, *Mespilus germanica*, mizpirarekin bat eginda bizi da elorri zuria. *Crataegus* generoko espezieak izan ohi dira elorri zuri horiek, txerto-oinetarako gehienetan *Crataegus monogyna*. Mizpira izena *mespilus* latindarretik datorrela iruditzen zait. Latin arrotza zekartenen ahoek gustuko zituzten fruitu arrotzen artean mizpira ez zen aza hostoa. Etxeko elorri zuriari txertatzen zaio harrezkero.

Etxekoa bai; mizpirak ez bezala izen mordoa baitu euskaraz, elorri zuriaz gain, besteak beste, arantza zuria, babatxi, ilurri, abilluri, arantze, aspil, elorri-ziril, aranzibia eta gillorri. Gure inguruko kulturetako hizkuntzetan ere izen pila du. Gaztelaniz ehunetik gora izen badu, horietatik batzuk deigarri egin zaizkit: *arto*, *arto venenoso*, *arto de manzaneta*, *arto blanco*, *arto marino* eta *arto motillonero*.

“Arto” hitza grekotik omen dator eta oinarritzko ogia adierazten duela diote. Gurean garai bakoitzak bere artoa izan du. Gaur egun artatxikia deitzen duguna aspaldi batean gure artoa izango zen; zein ote, *Panicum miliaceum*, *Setaria italica*? Gero Ameriketatik ekarritakoak (*Zea mays*) askoz etekin hobe ematen zuenez hark



DROW_MALE-CC BY SA

Crataegus monogyna, elorri zuria.

kendu zizkion soroak, errotak eta baita izena ere. Gaur egun, oraindik ere, artirinarekin egindako ogiari artoa deitzen zaio. Horra greziera gure ahotan. Orain, baina, gure ogia batez ere gariz (*Triticum* sp) egiten da. Gariari deitu beharko diogu arto.

Elorri zurira itzuliz, gaztelaniz ere arto deitzeak zer adierazi deza-ke? Garaiaren batean eta nonbait elorriaren pinporta gorriak arto izan zirela? Ez nintzateke batere harrituko. Maspila, gurbea, otsalizarra, maaltza, sagar makatzak, hurrak... euskaldunok ikaragarri zor diegu fruitu txiki horiei. Zenbat gose berdindu ote dute milaka

urtetan, latina sortu ere egin gabea zen garai haietan! Fruitu horiek baino gozoagoak izango ziren gero nekazaritza neolitikoak ekarri eta sorotik abiatuta, errotatik eta oramahaitik barrena igaro eta labean erretzen ziren labore eta artoak. Gutxi batzuk arto eta ogiak jaten hasi ziren garaietan beste batzuk fruituei heldu beste aukerarik ez zuten izango. Era zahar-ari eusteko batzuek eta ezinagatik bat baino gehiagok. Horiek elorrio izango zuten. Hortik ote dator esaera? Geroagokoa izango da “Elorria lora, artoa lurrera”. ■



Inaurkinak

KORTA, borda eta ukuiluetan aziendaren azpiak egiteko inaurkina erabiltzen duenik bada oraindik. Ira irailean moztu, ihartu eta metatxorroetan, metetan edo ganbaran bildu eta jaso. Irak berak erakusten du, gorritzen hasten denean, sega noiz dantzatu. Garai bateko nonahiko lan hori, gaur egun bakan bilakatu da. Oso noizbehinka ikusi daitezke ira moztutako sailak. Eta irametak artelan dira, mendietako eskulturak. ■



Jaungoikoa akusatuen aulkian

CENTURY CO



AGE



Ezkerrean, Anatoli Lunacharski (1875-1933) Jaungoikoaren aurkako epaiketara deitu zuen komisarioa. Eskuinean, boltxebikeak indar tsaristen aurka tiroka, 1917an, Petrogradoko kale batean; hurrengo urtearen hasieran tiroak airean gora botako zituzten, Jaungoikoaren aurka.

MOSKU (SESB), 1918KO URTARRILAREN 16A. Iraultza boltxebikea gauzatuta eta tsarren agintaldia abolituta, erregimen leninistak hasieratik bere boterea erakutsi nahi zuen, maila guztietan. Anatoli Lunacharski dramaturgoa, literatura eta arte kritikaria eta politikari komunista *Narkomproseko* (Instrukzio Publikorako Herri Komisariotzako) arduradun izendatu zuten, eta komunista guztiek irrikaz itxaroten zuten epaiketa abiatzea lortu zuten.

Auzi gelaren albo batean, Estatuko fiskaltzaren ordezkariak zeuden, epaiketa irabazteko ziurtasunak adoretuta; akusatuen aulkian Jaungoikoak egon behar-ko zukeen, baina epaitegian ez agertzea erabaki zuten, nonbait, eta haren ordezkari moduan Bibliaren ale bat ipini zuten.

Jendez gainezka dagoen gelan isiltasuna nagusitu zen fiskala Jaungoikoaren aurkako karguen zerrenda luzea ozen irakurtzen hasi zenean: genozidioa, gizadiaren aurkako krimenak... Eta froga gisa askotariko testigantza historikoak aurkeztu zituen. Ondoren, defentsako abokatua bezero ahalguztiduna defendatzen saiatu zen,

hainbat zertzelada aringarri aurkeztuz: Jainkoak nortasunaren nahasmendu zorrotza eta dementzia larria omen zituen. Baina epaimahaiko kideek ez entzunarena egin zuten; absoluzioaren aukera ez zuten kontuan ere hartu. Epaitzen ari ziren krimenak oso larriak ziren, salaketa sobietar herritarrengandik etorri zen eta, horrenbestez, auziak gizadi guztia babestea zuen xede. Eta epaia eman artean, akusatuak ez zuen txintik ere esan.

Epaiketak bost ordu iraun zuen, eta epaia garbia eta irmoa izan zen: Jaungoikoa egotzitako krimen guztien erruduna zen. Biharamun goizean fusilatuta hiltzera kondenatu zuten, zigorra atzeratzeko edo apelazioetarako aukerarik gabe.

Hala, 1918ko urtarrilaren 17ko goizalde hotzean, zehazki 6:30ean, Jaungoikoaren aurkako heriotza zigorra exekutatu zuten, baina kondenatuak, berriro ere, agertzeari uko egin zionez, metrailadoreek bost tiro jasa bota zituzten airearen kontra, bateren batean asmatuko zutelakoan. ■



Arrastoak

Estoldetako arkeologia

ANTONIO ZAMBARDINO



ERROMATAR FOROAREN azpian sartu da arkeologo, espeleologo eta ingeniari talde bat, *Cloaca Maxima* delakoa, ezagutzen den estolda sare publikorik zaharrena, aztertze-ko; K.a. VI. mendekoa da lurzorutik hamabi metrora dagoen estolderia.

Ikertzaileek Lucius Archeorobot izeneko ibilgailu anfibioaren lagun-

tza dute, gizakia sartzen ez den galeria estuak lehen aldiz aztertu ahal izateko. Patrizia Fortini proiektuaren arduradunaren esanetan, “Luciusen datu objektiboek lur azpiko mundu honen ezagutza berria eta xehea eskainiko digute”, erromatar zibilizazioaren oinarriari buruzko ezagutza, literalki. ■

Manzanas-Lesmes konexioa argitu digu Marcelo Usabiagak

Hernaniko Orbegozo burdindegiko lankideez informazioa helarazten zion Melitón Manzanas Demetrio Lesmes langileak. Mende erdia igarota, bien arteko harremanaz mintzo da lehen aldiz Marcelo Usabiaga 96 urteko komunista. Manzanas eta Lesmes ETAk hil zituen frankismo garaian.

Testua eta argazkia:

| AITOR AZURKI |

“ZER GERTATZEN ZAIZU ZURI?’. ‘Ez dut ezer sinatu behar’. ‘Gobernuaren dekretuaren arabera, soldata jaso ahal izateko, adin militarrean den orok sinatu behar du dokumentua. Zuk ere bai’. ‘Bada ez jauna! Nik ez dut sinatu behar! Zuk ez dakizu nor naizen nil’. Aurpegira begiratu eta ez nuen ezagutu: ‘Begira, pentsa ezazu lasai. Sinatu eta dirua emango zaizu’. ‘Bada ez, jauna! Ez dut egingo! Eta nik zu oso ondo ezagutzen zaitut!’; hau esanez zuzenean begira geratu zitzaidan. Hernanitik ezagutzen ninduela uste nuen. ‘Oso ondo ezagutzen zaitut! Eta zure bizitza osoa dakit! Zu preso egon zara urte askoan! Egunero hitz egiten dut Manzanasekin eta egiten duzun gauza guztiez informatzen dut!’. Orduan izutu nintzen...”

Hernaniko Orbegozo burdindegiko Pertsonal Saileko buru zela, Marcelo Usabiagak (Ordizia, 1916) Demetrio Lesmes (Sotoserrano, 1920 - Hernani, 1975) langilearekin izandako elkarrizketa honetatik ia mende erdia igaro da. 1965. urte ingurua zen eta orduantxe argitu ziren gure protagonistarentzat azken urteetan buruan jira eta bira izandako zenbait galdera, hainbat zalantza. Denboran atzera egingo dugu, misterioaren giltza bila.

Melitón Manzanas (Donostia, 1909-Irun, 1968) Irunen polizia inspektore izan zen, Gipuzkoako Gizarte Politikako Brigadako buru egin zuten arte. Ospetsu egin zen



Marcelo Usabiagak Manzanasen (ezkerrean) eta Lesmesen (eskuinean) arteko harremana kontatzeko erreparoa izan du beti. Biak ETAk hil zituen.



Goian, auto barruan, Melitón Manzanasen alarguna eta alaba 1968an, inspektorearen hiletan. Eskuinean, *Unidad* egunkari falangista Demetrio Lesmesen hilketaren berri emanez 1975ean. Lesmesek Hernaniko Orbegozoko langileak zelatatzen zituen eta informazioa pasatzen zion Manzanasi, tartean Marcelo Usabiagari buruzkoa.



oso bere gogortasun eta tortura-tzaile gupidagabe fama zela eta. Sindikalistak, PSOEko eta PCEko kideak, euskal nazionalistak... Hamaika izan ziren Donostia eta Irungo komisaldegietan bere galdeketetatik igaro ziren herritarrak. Gobernadore zibil frankistaren kolaboratzaile estua zen, baita anti-frankismoaren aurkako errepresioaren burua ere.

1944. urte amaieran gerrillari talde bat ontzi batean Bidasoa igerotako Hegoaldean sartzen ari zela jakin zuen Manzanasek, soldadu batek mendian metrailadore kargadore bat atzemanda. Handik egun gutxira, Manzanasek berak Usabiaga atxilotu zuen Donostiako pisu batean. Hamar gizon eta emakume batez osatu maki-taldeko kidea zen gure protagonista; orduantxe jakin zuten poliziek 30 urtera kondenaturiko eta Iparraldera ihes egindako preso errepublikarra zela.

Torturak Manzanasen eskuetan

Usabiaga Irungo komisaldegira eraman zuten: "Gela batean sartu ninduen Manzanasek: 'Aurrera joan, kabroi alena!'; eta mehatxuka: 'Beno, zuk denak ordaindu beharko dituzul'". Esan eta egin. Ukabilkadak

jaso zituen sabelean, eta zapatak erantzi eta paretean zutik jartzera behartu ostean, Usabiagaren oinen gainean salto egin zuen Manzanasek makina bat bider. "Gorriak ikusi nituen. Nire bizitzan pasa dudana beldur handiena gau hartan izan zen...".

Izan ere, bere eskuetatik igaro ondoren, goizeko ordu bietan, eskuak loturik, alde banatan polizia bat zuela, kalera eramazarazi zuen Manzanasek Marcelo: "Hau badakizue nola! Eta mugituz gero, egurra eta kito, e? Beldurrik gabe". "Esaldi hori ez zait ahaztuko, fusilatu behar nindutela pentsatu nuen. Nola ihes egin pentsatzeari ekin nion". Baina, azkenean, zorionez, Usabiagak eza gutzen ez zuen beste polizia-etxe batera eraman zuten. Atxiloteten ondorioa latza izan zen: Pedro Barroso gerrillari komandanteak heriotza zigorra jaso zuen eta Gasteizen exekutatu zuten. Gainerakoek, 20 urteko espetxe-zigorra.

Ordiziarrek bere zigorra gogotik ordaindu zuen; zegokiona baino gehiago: 21 urte eman zituen Espainiako Estatuko zenbait espetxetan, eta azkenean, 1960. urteko ekainean askatasuna erdietsi zuen.

Espetxetik igaro ondoren, Orbegozo fabrika hasi zen lanean. Dena dela, bi hamarkada igarota ere, Manzanasek ez zuen Usabiaga bakean utzi: igandero Donostiako Gobernu Zibilera joatera behartu zuen, Polizia Armatuaren eraikineri. Bertan goizeko hamar eta erdietatik ordubietara aulki batean eserita izaten zuen Marcelo. "Jo ez, baina denetarik esaten zidaten handik pasatzen ziren poliziek: putasemea, 'gorria'... Nireak eta bi pasarazi zidan honek".

Manzanas-Lesmes konexioa

Gezurra badirudi ere, azken gerta-kizun horrek harreman estua du Demetrio Lesmesen kasuarekin, izan ere, igandetan, komisaldegian, Melitón Manzanas Usabiagaren ondoan geratzen baitzen sarri denbora luzez berarekin hizketan: "Orduan konturatu nintzen asko zekiela nitaz, aste osoan lantegian egiten nituen gauza asko zehatz-mehatz esaten zizkidan eta, esaterako, zuzendari edo abokatuarekin izaten nituen bilerak, lan-magistraturan izandako epaiketak... 'Nola demontre jakingo ote du honek?'. Jakin-min izugarria eragiten zidan, baina ez nion garrantzia gehiagorik

eman, egiten nuena jakitea legala baitzen”. Azkenean, enpresako abokatuarekin kontsultatuta, igandeetan polizia-etxera gehiago ez joatea erabaki zuen: “Tontoarena egiten ari naiz, ea zer gertatzen den!”. Hala, Manzanasen aginduari aurre eginenez, legez ez baitzuten derri gorrezkoa igande oro preso ohiek komisaldegira bertaratzea. Hala ere, Marcelok jazarpen latza espero zuen Manzanasen aldetik.

Baina, bere harridurarako, bakean utzi zuen. Polizia-buruaren berririk gehiago ez zuen izan urte batzuetan, harik eta Demetrio Lesmes bere bizitzan azaldu zen arte. Berarekin izandako elkarriketa tirabiratsua Lesmesek berak hasi zuela gogoan du 96 urteko komunistak. “Nik ez nuen ezagutzen. Bostehun langileren artean beste bat zelako. Besterik ez. Gainera, berak esan zidan, nik galdetu gabe: ‘Egunero hitz egiten dut Manzanasekin’. Eta paper bat atera zidan: ‘Francoren guardiaren parte naiz ni!’. Imajina ezazu nola geratu nintzen... Harri eta zur”.

Gertakaria Usabiagaren memorian iltzaturik mantendu da hamarkada luzez, orain gutxi kazetari honi kontatu dion arte. “Harrezkero ez nuen gaiaz gehiago jakin nahi izan. Eta publiko ere ez nuen egin; ez nion inori ezer galdetu, ez nion gaiari kasu gehiagorik egin. Jakinda nor zen bera! Bizitza izorratuko zidala pentsatzen bainuen. Pentsa,

urte gutxi batzuk neramatzen kartzelatik kanpo”, azpimarratu du Usabiagak. Nolanahi ere, ez zuten bakean utzi eta frankismo osoan kontrolatu eta espiatu zuten. Eguneroko lanetan zebilela, bere bizitza egiten, bat-batean galdeketa susmagarriak pairatzera komisaldegira joan beharra ongi aski gogoratzen du Marcelok: “Zertarako itzuli zara Iruñetik autoan? Zer egin duzu bertan?”, hainbat aldiz itaundu zida-

ten. Nik banekien nire atzetik zebiltzala”.

Lesmesekin izandako elkarriketatik hiru urtera, 1968ko abuztuaren 2an, ETAk Melitón Manzanas hil zuen Irunen; bere historian prestatu eta antolaturiko lehen hilketa politikoa izan zen hura. Zazpi urteren buruan, berriz, 1975eko abuztuaren 8an, Demetrio Lesmes hil zuen ETAk Hernanin, aipatu lantegitik etxera bidean zihoala tirokatuta.

Egiazko xehetasunak aireratzen

Gertatutakotik mende erdia igaro ondoren, gure herriaren historiaren xehetasunok azaleratu dizkigu Usabiagak. Dena den, bere nahia ez da hautsak harrotzea, ezta jazoerek berarekin zerikusia dutela pentsatzea ere: “ETAk egindakoarekin inork ni lotzerik ez nuke nahi inondik inora. Argi jar ezazu hori, horregatik kontatzeko erreparoa izan baitut beti”, adierazi du tinko.

Memoriaren aldeko borrokalari sutsua izaki, gizarteak berari gertatutakoaren berri izatea du xede, historiaren zirrikitu ilunak eta egia osoa ezagutaraztea da bere bizitzako erronka nagusia. Izan ere, Fred Berence idazleak esan zuen lez, “historia txikiari hainbat teoria modernok trufa egiten badiote ere, honek historia handian esku hartzen du etengabe, eta, maiz, baita hura zehaztu ere”. ■

MARCELO USABIAGAK UTZIA



Marcelo Usabiaga (eskuinean) Burgosko presondegikotian, 1955ean. 1944an Manzanasek atxilotu eta torturatu egin zuen. 21 urte egin zituen kartzelan, baina libre geratu ondoren, Manzanasek ez zuen bakean utzi.



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Tanveer eta Saifullah, Azkoitian euskara ikasten

Tanveer Hussain eta Saifullah Khadm Hussain ez dira euskaldunak jaiotzez. Pakistanen dute jatorria eta urte gutxi daramatzate gure artean. Biak euskalduntzeko bidean dira eta asmo horrekin biltzen dira astero Banaiz Bagara elkarteak Azkoitian antolatutako euskara ikastaroetan.

Testua eta argazkia:

| IURE EIZAGIRRE |

PARE BAT URTE IGARO DIRA Tanveer Hussain Azkoitiara heldu zenetik. Ordurako Saifullah Khadm Hussain han zegoen, urtebete gehiago baitarama herrian. Gaztelaniaz hitz egiten ikasi zuten lehenbizi baina laster sentitu zuten euskara ikasteko grina, beraien esanetan, hemen bizita beharrezkoa baita. Zergatik ikasten duen galdetzen diotenei euskara ikasteko gogoagatik egiten duela erantzuten die Tanveerrekin.

Bi pakistandarrok Banaiz Bagara elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan hasi ziren euskara ikasten, Petra Elser irakasle zutela. Astero biltzen ziren, nahiz eta Tanveerrekin aitortu duenez, hasieran ez zen beti joaten klaseetara. Gerora hartu zuen hutsik ez egiteko ohitura. Euskara ikasleok ezagutzera gerturatu ginen egunean ere bada huts egin duenik, izan ere, bi ikasle agertu dira klasera, normalean lau eta zortzi artean izaten diren arren. Saifullah Khadm-ek berehala zehaztu du: “Gaur lau”, irakaslea eta kazetaria ere han baitira mintzapraktika egiteko.

Euskaraz komunikatzen ikastea dute helburu, kalera irtetean jendearekin hitz egin ahal izateko. Elser irakasleak hala dio: “Gramatikaren irakaskuntzan interesik ez baina euskaraz komunikatu nahi duten edo euskaltegira joateko denborarik ez duten atzerritar eta erdaldunei zuzenduta daude ikastaroak”.



Ezkerretik eskuinera Tanveer Hussain eta Saifullah Khadm Hussain ikasleak. Euskaraz gain, gaztelania, urdua eta punjabiera hitz egiten dituzte.

Afixak eta pilota oinarri

Hizkuntza ikasteko arbetetako ohiko esaldiak eta aditz trinkoen taulak albo batera utzi eta kartulinez egindako afixak eta teniseko pilota erabiltzen dituzte ikastaroetan. Hasierako mailetan egunerokotasunarekin lotutako hainbat gauzez hitz egiteko aukera ematen dute kartelek, Elserrek azaldu duenez. Gainera, galdera-erantzunetan aritzeko, eta jendeak parte hartu eta gauza gehiago esateko parada ema-

ten dute. Tanveerrekin erakutsi du zein den erabiltzen duten metodologia: “Lehenbizi hitzak ikasten ditugu eta gero esaldiak egiten ikasten dugu kartelekin”. Berehala hasi da Saifullah Khadm ariketarekin, irakasleak minutu batzuk lehenago mahai gainean jarri duen galdera irakurrita: “Tanveer, norekin ikasi nahi duzu?”. Eta teniseko pilota pasa dio, ikaskideak erantzun dezan: “Nik irakaslearekin ikasi nahi dut”. “Eta gero kartelak eta galdera alda-

tzen ditugu”, zehaztu du Elserrek.

Euskal kantak eta dantzak ere izaten dituzte euskara ikasteko tresna. Kantuak ludikoak direla eta bertako kultura zein euskarazko ahoskera lantzeko balio dutela adierazi du Elserrek. Ikasleei galdetuta, abesti gutxi ikasi dituztela diote eta Elserrek Iparragirreraren *Gazte gaztetatikan* aipatzean berehala hasi dira abesten: “...heritik kanpora”. Dantzek, berriz, beste mota bateko hiztegia ikasteko balio ei dute, gorpuzarekin, mugimenduekin, lekuekin nahiz espazioarekin lotutako eleak erabiltzen direlako.

Pixkanaka, beraz, kalean euskaraz aritzeko prestatzen ari dira, nahiz eta Tanveerrek aitortzen duen aurrean duen pertsonaren arabera erabiltzen duela bertako hizkuntza: “Nik hemen asko egiten dut euskaraz jendearekin, baina ez dakit nork dakien euskara”. Beste zailtasun bat ere badute: klasetako eta kaleko hizkera ezberdinak dira. Lehen ez zuten ulertzen kaleko hizkera baina denborarekin gainditu dute hori ere. Eta Elserrek sorpresa polita izan du zentzu horretan, mintzapraktika honen bitartez ohartu baita Saifullah Khadmek, oraindik hitz egitea kosta arren, oso ongi ulertzen duela euskara. “Bai, ulertu ondo”, baieztatu dio ikasleak. Saifullah Khadmek Banaiz Bagararen asteroko ikastaroan eta Helduen Eskolan beste ordubetez bakarrik ikasten duela euskara argitu du ondoren Elserrek. Tanveer, berriz, euskaltegira ere joaten da. Azken horrek euskararekin duen beste arazo bat gogoratu eta bat-batean mahaigaineratu du: “Ez dut ulertzen zergatik Azkoitian euskara bat dagoen, Azpeitian bestea eta Tolosan bestea. Zergatik da desberdina? Hori ez dut ulertzen”.

Hizkera ezberdintasuna ez ezik, hizkuntza desberdintasuna ere eza-

gun zaie dagoeneko. “Hemen, Azkoitian, gaztelaniaz gutxi eta euskaraz asko hitz egiten du jendeak. Donostiara edo Zarautzera joan naizenetan, han gutxi, oso gutxi, egiten da euskaraz”, azaldu du Tanveerrek.

Eleaniztasunera ohituak

Euskal Herriko elebitasuna ez zaie arrotza Tanveerri eta Saifullah Khadmi, Pakistanen ere antzeko egoera ezagutu baitute. Punjab probintziako Gujrat hirikoak dira biak. Urdu hizkuntza da han ofiziala baina milioika pertsonen punjabiera hitz egiten dute, tartean Azkoitiko bi herritar hauek. “Etxean eta kalean punjabiera hitz egiten dugu”, zehaztu du Tanveerrek, “eskolan urdua”, gaineratu Saifullah Khad-

“Ez dut ulertzen zergatik Azkoitian euskara bat dagoen, Azpeitian bestea eta Tolosan bestea”

Tanveer Hussain

mek. Errespetuzko trataeran urdua erabiltzen da eta erregistro informala goetan, berriz, punjabiera. Ondorioz, urdua da bulegoetako, eskoletako, aireportuetako eta unibertsitateetako hizkuntza, arlo profesionalean darabiltena.

Herrialdean urdua baino gehiago hitz egiten den arren, ikastetxeetan ez dute punjabiera irakasten. Hizkuntza hori etxetik dakartenek ere urduz eskainitako hezkuntza jaso dute. Hori da, Tanveerren kasua, esaterako. Hala ere, ez dute punjabiera ahazten eta galtzen, kalean zein etxean erabiltzen baitute, baita Euskal Herrian elkarren artean ere. Gainera, telebistan ere bi hizkuntzak erabili ohi dituzte.

Baina ez dira bi horiek Pakistan-

go hizkuntza bakarrak, beste asko daude. Siraiki, pahari eta ingelesa dira Tanveerrek eta Saifullah Khadmek momentuan gogoratu dituzten hiru.

Euskara Zubigile beka

Banaiz Bagarako ikastaroetan ari-tzearekin batera, Azkoitian ikasten duten taldeko bi kide AEK euskaltegira joaten dira, Zubigile bekari esker. Elkartek joan den ikasturtean sortu zuen beka, Azkoitiko Udalaran eta AEKren laguntzarekin. Hiru ikaslek euskaltegian ikasturtea doan egiteko aukera izan zuten, trukean beste egitasmo batzuetan parte hartzeko baldintzarekin. Tanveer izan zen beka jaso zuen ikasleetako bat eta aurreko ikasturtean laguntzaile gisa aritu zen elkartean bertan, besteak beste, antolamenduan laguntzen.

Beste ikasle batek AEK-k antolatutako Etorkinak eskolan programan hartu zuen parte. Umeentzako indartze eta mintzapraktika saioak dira horiek, eta euskara ikasleak zubigile lana egin zuen umee-kin, gurasoe-kin zein irakasleekin. “Umeek edo gurasoek zerbait ulertzen ez zutenean beraiekin hitz egiten zuen, batzuetan baita kulturarteko gaizkiulertuak arintzeko ere”, azaldu du Elserrek. Hirugarren ikasleak, berriz, utzi egin zuen beka, gaztelania eta euskara batera ikastea gehiegizkoa zitzaiolako eta buruan etengabe nahasten zituelako.

Ikasturtea osorik egin zuten ikasle- leen garapena nabarmena izan da Elserrentzat: “Ia urtebete oso ondo ikasi dute hitz egiten, denak ez dira hitz egiteko gai epe horretan”. Eta horretan jarraitzeko aukera izango dute, beka luzatu baitzieten ikasturte hasieran. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Indiako erreforma ekonomiko patriarkalek ere hil dute Amanat

Vandana Shiva aktibista indiarraren iritziz, emakumeen kontrako indarkeria, emakumeek ekonomian jokatzeko duten rola gutxiesten dator herrialde hartan.

| URKO APAOLAZA AVILA |

DELHIN PROTESTA HANDIAK izan dira, hainbat gizonen 23 urteko emakume bat bortxatu eta hil ondoren. Vandana Shiva aktibistak *Al Jazeera*-ren webgunean argitaraturiko artikuluan aztertutako emakumeenganako biolentzia handitzearen eta azken hamarkadetakako erreforma ekonomikoen artean dagoen harremana.

Prentsak "Amanat" ezizena eman dio berriketan hil duten emakumeari. Abenduaren 16an autobusean zioan, hainbat gizonen bortxatu, torturatu eta errepidera bota zutenean. Amanatek bi aste egin ditu herioan, baina ez du urte berria ikusi. Bortxaketa kasu hau, Indian emakumeek jasaten duten biolentziaren adibide eta ikur bilakatu da.

1990etik hona bortxaketak %240 handitu direla dio Krimenen Errola Bulego Nazionalak, hain justu Indian politika ekonomiko berriak ezarri zirenetik. "Egon daiteke loturarik antidemokratikoki inposaturiko politika ekonomiko, biolento eta injustuen, eta emakumeen kontrako biolentzia handitzearen artean? Uste dut badagoe-la", dio Vandana Shivak. Indiako iraupen ekonomian emakumeek jokatzeko duten rola "ez produktibo" gisa gutxiesten da, hein batean, biolentzia horren guztiaren atzean dagoena, Shivaren iri-



Amanat gaztearen bortxaketa eta hilketak herritarrek sumindu ditu Indian, eta genero indarkeriaren arazo larria lehen aldiz bistarazi du.

tziz. Hauek dira artikuluko pasarte esanguratsuetako batzuk:

"Patriarkatu kapitalistak emakumeak baztertzeko dituzte ez dutelako, mentalitatearen arabera, aberastasuna sortzen, eta haienganako biolentzian sakontzen du, emakumeak

"Emakumeek ekonomian duten egoera ahulak, are ahulago uzten ditu biolentzia mota guztien aurrean, eraso sexuala barne"

beren iraupen baliabideetatik aldenduz".

"Askotan azpimarratu izan dut Lurraren bortxaketa eta emakumeen bortxaketa estu loturik daudela, metaforikoki, mundu ikuskera osatzeko orduan, eta materialki, emakumeen eguneroko bizitzan. Emakumeek ekonomian duten egoera ahulak, are ahulago uzten ditu biolentzia mota guztien aurrean, eraso sexuala barne".

"Sistema ekonomikoek balore sozial eta kulturalen eragin behar dute. Merkantilizazioaren ekonomiak, merkantilizazio kultura sortzen du, gauza orok du prezio bat eta ezerk ez du baliorik. Handitzen ari den bortxaketaren kulturak, erreforma ekonomikoa azaleratzen du gizartearen".

"Delhin gertaturiko talde-bortxaketaren biktimak, iraultza soziala eragin du. Mantendu egin behar dugu, sakondu eta hedatu. Eta hori egiten dugun bitartean, 'hazkundearen' ize-nean inposatzen diguten paradigma aldatu behar dugu, emakumearen kontrako gero eta krimen gehiago elikatzen ari baita. Emakumearen kontrako indarkeriarekin amaitzeko, patriarkatu kapitalistak ezarritako ekonomia biolentoaz harago joan behar da, emakumeak eta Lurra errespetatuko dituen ekonomia ez biolento eta baketsu berrantztz". ■



Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Ramon Etxezarreta Badu, bada erakusketaz

BADU, BADA. *Euskara mundu eleanitzean* erakusketa otsailaren 17ra arte ikusteko moduan izango da Donostiako San Telmo museoan. Hainbat bisita gidatu egin dira. Horien artean izan dira Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, eta Ramon Etxezarreta. Museoko aretoak igaro ahala haien gogoetak egin dituzte, lehenengo biek bertsoetan. Ramon Etxezarretaren hausnarketak ondoko lerroetan:

– “Ez dakit oso ados nagoen ni bideo honekin [*Estres linguistikoa* bideoa argia.com-en ikus daiteke]. Eta ados nagoen edo ez nagoen erabakitza behartuko banindute, seguru aski, ezetz esango nuke. Bi hizkuntza dakidanaren erosotasunean bizi naiz, bakarria jakitea estresanteagoa da bi jakitea baino”.

– “Euskara hizkuntzagoa izan behar da, sinbolo baino, eta horregatik sortzaileak behar ditugu, jende jantzia”.

– Eta euskaltegien harira: “Euskara ikasten hastea, kultur aportazioa izan zen askorentzat. Euskara ikastetik hasi, eta gero beste formazio mota batzuk jasotzera animatzen zen jendea”.

Ondoko bi bertsoak Arzallusek bota zituen, euskaldunaren soslaia gaztea, hiritarra eta eleanitza zela jakindakoan:

*Baina piskana baserri horiek
kostara joan ziren husten.
Euskara ere hala joan zen
bere presentziak biluzten.
Trasmisioan kateak nola
askok huts egin zituzten.
Gaztearekin ez nago ados
gazteak doaz frantsesten.
Ni ere ia ez naiz ispiluan
leben bezain gazte ikusten.*

*Eta azkena eleanitza
ireki guretan goren.
Unibertsalak biburtzen gara*

*lau mintzo jakin ondoren.
Baina alde dago bakoitzak
zer mintzo duen ondoren.
Ta lau hizkuntza dakizkein hori
nahiz oso jantzia omen.
Geure herriko izan gaitzen
munduko izan baino leben.*

Hizkuntzen arteko bizikidetzaz hone-
la aritu zen Lujanbio:

*Horrek horrela behar luke baina
ez da beti hola, bara:
Isiltasuna seinalea da
bitz egitea euskara.
Eta erderaz bitz egitea
hori elkarbizitza da*

*Askok AEKn sartu ezkeero
hartuko lukete poza.
Intelektual jende asko da hemen
baina intelektual motzak.
Kanpokoakin maiteminduta
eta etxeokaz lotsa.*

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Hazkunde solidarioa lortzeko aurrekontuak

URTE BERRI HONETAN Hego Euskal Herrian aurrekontu berriak izango ditugu. EAEko eta Nafarroako gobernuek aurkeztu beharko dituzte, eta parlamentuetako taldeen artean negoziatuko dira. Gure herriko alde horretan dagoen krisi egoera “larrialdi nazional” izendatu du zenbaitek. Gero eta enpresa txiki eta ertain gehiago ixten ari dira; langabezia maila jasanzinera iristen ari da; gure gazteria zahartzen ari da lanik aurkitu gabe; pentsionistak ari dira ikusten euren diru-sarrerak nola gutxitzen diren; menpekotasuna handituz doa progresiboki; pobrezia eta bazterketa soziala ere handituz doa; etxegabetzeak ez dira gelditu; suizidioak –ezagun egin direnez gain, ezezagun direnak– gero eta maizago; soldatak inflazioa baino gutxiago ari dira hazten... Eta bitartean, bankuek eta aurrezki kutxek, milaka milioi euro eman dizkieten arren, ez dute kreditu-iturria ireki.

Hori horrela izanik, hazkunde ekarriko duten eta solidario izango diren aurrekontuak behar ditugu.

Amildegira eraman gaituzten murrizketa eta doikuntza politikak utzi behar dira, eta hazkunderako neurrien alde egin, enplegua sortu eta egoera larrian dauden milaka familiarekin elkartasuna izateko. Horretarako, bistan da, diru-sarrerak behar dira. Lortzeko, bi gobernuek, Barcinarenak eta Urkullurenak, badakite nondik atera daitezkeen: aberastasun handien eta bankuen gaineko zerga bereziak sortuta eta iruzur fiskala pertsegituta, hori ere bai baitakite non eta zein lanbidetan gertatzen den. Horrek guztiak fiskalitatearen erreforma eskatzen du; orain arte aurre egin nahi izan ez zaion gaia da, bide onetik abiatu den Gipuzkoako Foru Aldundian salbu. Gerrikoa estutu behar dugula diote. Langileek eta herri sektoreek jadanik nahikoa estutu dute. Beste batzuen txanda da orain.

Juan Mari Arregi



Brenniliz 1985, 2013... zenbat urte behar da atomoa amatatzeko?

Bretainiak badu Garoña ñimiño bat, Brenniliz, sakeleko zentraltxo nuklearra, 1967tik 17 urtez elektrizitate pittin bat sortu ostean 1985ean gelditu eta oraindik eraitsi gabe dagoena. Enpleguak zirela eta hura bizirik nahi zuten herritar eta agintariak orain begien aurretik kendua nahiko lukete. Baina atomoa itzaltzea ez da hain erraza.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BREITAINIAN MENEZ ARE MENDIEK (Monts d'Arrée frantsesez) Irlanda edo Galesko paisaia osatzen dute Frantziako Finistère (Pen-ar-Bed bretoiez) departamenduan. Zuhaitz gutxi, landa zabalak, txilar eta iratzek, zotal-ikatza oinpean, errekek eta Yeun Elez ibaiari hesia eginik sortutako Saint Michel aintzira. Hemen dago Brenniliz (Brennilis frantsesez) herrixka.

Antzinako Berainiaren bihotzean, Arturo erregearen kondairaz mintzo diren parajeotan, justu zeltek infernuko ataria zegoela uste zuten txokoan erabaki zuten eraikitzea Paris-ko agintariak Frantziako lehenbiziko zentral nuklearra. 1962a zen, Frantzia bonba atomikoaren jabe diren klubean sartua zen eta munduaren energia beharrak oro ase behar omen zituzten zentralen eraikuntzan aitzindari nahi zuen. 50 urte beranduago, uraniozko erreaktorea eraistea zein garesti ateratzen den erakusten diote frantsesek munduari Brennilizen.

1967an abiarazitako zentrala ur astunezkoa zen; alegia, ur astunez hozten zutela argindarra sortu behar zuen turbina mugiarazteko sutzen zen uranioa. Commissariat à l'Energie Atomique (CEA) erakundeak %100 frantses teknologiaz eraiki nahi zuen Brennilizkoa. Berehala ikusiko zen atomo zibilaren

bidea bestelako tekniketarik joango zela, ur arinez funtzionatzeko diseinatu baitziren garai beretsuan eraikitako Santa Maria de Garoñakoa bera eta Fukushima Daiichin lehertu direnak bezalako beste senide asko. CEAk egoskor segitu zuen, ordea, eta 1967an martxan zegoen Brennilizko zentraltxoa.

Zentraltxoa diogu benetan txikia izan delako: 70 Megawatteko potentzia zuen (txikietakoa den Garoñakoa 466 MWekoa da), 1967tik 1985era arte 6,235 Terawatt ekoiztu zituen (Garoñak 2011n, urte bakarrean, 3,743 TW). Abiatzerako teknologian aldaketak sartu beharretik hasita, dena izan zen arazo Brennilizen.

1975eko abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren egunez, FLB-ARB (Front de Libération de Bretagne, Armée Revolutionnaire Bretonne) talde armatuko komando batek lehertu zituen turbina batera ura zeraman hoditeria eta turbinako CO₂ gasa kanporatzen zuen bestea, zentralaren kanpoko aldetik, produkzioa geldiarazteko asmoz. 1979an zentral atarian argindarra zeramaten bi zutoin zapartarazi zituen FLBk. Oraingoan bai, lehenbiziko aldiz geldiarazi zuen talde armatu batek Europako zentral bat.

Gure artean Lemoizko gatazka-oren oroitzapenak pizten dituzten

Kemperleko (Bretainia) *Quimperlé en ligne* webgunetik hartutako irudian, Ergue-Gaberic (Ergue-Vraz, bretoiez) herrian abenduaren 18rako iragarritako film emanaldia: Brigitte Cheveten *Brennilis, la centrale qui ne voulait pas s'éteindre* (Brenniliz, itzali nahi ez zuen zentrala) erakutsi zuten, zuzendaria bertan zela. Argazkian Sortir du Nucleaire mugimenduko kideak ageri dira zentralaren aurrean protestan, Demantelement Tellement Dement (libreki euskaraturik, "Hau bai Desmuntaketa Zorua") hitz jokoa osatuz. 1985ean geldiarazia, 27 urte beranduago Brennilizko zentralaren bihotz erradiaktiboak zutik dirau. Ez dago desmuntatzea bukatzeko epe finkorik. Atal irradiatu guztiak nora eramanik ere ez. Kostako den diruaz aparte, noiz arte luzatuko ote da Garoñakoaren eraisketa? 27 urte barru 2040an bertan jarraituko ote du?

ekintzon garaian Frantziako aginte eta ordezkartza gehiagoren kontra jo zuten FLBkoek Bretainian. Ogasun zentralaren egoitzak plastikatu zituzten sarri eta bereziki famatua izan zen Roc'h Trédudoneko atentatua: 1974an telebista frantsesak han zeukan 200 metro altuerako antena erraldoia lurreratu zuten, Finistère osoa bi hilabeterako telebistarik gabe utziz.

480 milioi euro zentrala eraisteko

Baina Brennilizko zentrala ez FLBk, errentagarritasunik ezak geldiarazi zuen 1985ean. Inguruko herritar askok eta agintariak Gobernuari eskatu zioten martxan jarraitzeaz gain bigarren bat gehitzea. Alferrik.

1995ean Christian Fremont Finistèrereko prefetak iragarri zuen: "EDFk (Electricité de France, Frantziako kasik monopolioa duen multinazional gaur pribatizatu), CEAk eta nuklearrean ari diren enpresa handi guztiek elkarrekin adostu dute Brenniliz eraisteko operazioa eredugarri izatea". Horretan ere oker hasi ziren: Frantziako diru publikoak auditatzen dituen Cour de Comptesek 2005ean aitortuko zuen hasieran 19,4 milioi euro kosta behar zuena 480 kostako zela... agindutakoa bider 25!

Joan den azaroan Fabrice Nicolino *Charlie Hebdo* astekari satirikoan



argitaratutako *Brennilis, une centrale nucléaire pour l'éternité* artikuluarekin gogorarazi digu Brennilizko makinak erabat itzali gabe darraiel, gelditu eta 27 urte beranduago. Eta *France Ouest* kateak ekoiztutako *Brennilis, la Centrale qui ne voulait pas s'éteindre* dokumentalak (Interneten ikusgai dago) azaldu ditu Britainia-ko zoko hartan urteotan sortutako konplikazioak.

Alde batetik, zentralak bizirik segi zezala eskatu zuten lekuko notable eta herritarrek berek orain bestelako planak dauzkate parajeotarako: *Retour à l'herbe!* (libreki itzulirik, "Itzuli lehengora") kanpaina antolatu da inguruok *Parc Régional* izendatzea probestuz. Eta parke natural batean hain egiten du itsusi

zentral nuklear baten betonezko kanpai handiak...

Baina bestetik, *Sortir du Nucleaire* mugimenduko ekologistek pixkanaka hautsi dute EDFk eta Parisko agintariak zentralaren inguruan eraikitako isiltasun zorrotza. Inguruan urte luzez eta oraindik ere zabaltzen den kutsaduraren zantzu eta frogak zabaltzen hasi dira.

Brennilis, la Centrale qui ne voulait pas s'éteindre dokumentaleko kamerak joan dira militanteekin zentralaren inguruko hesiaren zulotik pasata bertako erreketako ur, goroldio eta besteren laginak biltzera. Horiek gero Valenceko CRIIRAD erakundeko laborategietara bidali eta demostratu da hemen badela kutsadura erradioaktiboa. Izan liteke

zentrala martxan zegoenean isuritakoa, baina baita ere eraisketa lanen ondorioz barreiatuak.

Zalantza honek, hain zuzen, geldiarazi ditu Brenniliz eraisteko obrak. Hiru fasetan burutzeko asmatuak, lehenbizikoan lantegiko erregai guztiak atera zituzten, biltegiak hustuz. Bigarren, errektorea den lapiko erraldoia ez besteakhasi ziren eraisten, baina aurretik kutsatutako atal guztiak desmuntaturik, hoditeria dela, eraikinen kanpoko azaleko hormigoia bera... Hirugarrenean desegin behar dute errektorea bere kupula eta guzti.

Ekologistek, ordea, erakutsi dute EDFk ez duela plan zehatz bat kutsatutako hondakinak ondo kontrolaturik garraiatu eta metatzeko. Auzitara joanda epaileek arrazoiak eman zieten 2011n, eta orain enpresak 2014rako agindu du aurkeztuko duela plan berria.


Bitartean, kutsadura arrastoak ugaritu dira nonahi. Tritioa, zesioa, plutonioa ere bai... Horien jatorrien bila galdezka doanari EDFk ez dio azalpen garbiz erantzuten. Ordainetan, zentralako zenbait teknikari hasi da egia zaharrak aitortzen.

Zentralean 20 urtez aritu den Michel Marzin ingeniariak kamerari kontatu dizkio xehetasun harrigarriak. Esaterako, nola kontrolatzen zen errektorea babesten duen kupula erraldoiak ihesik ez izatea: arrosa usaina zabaldu eraikin barruan eta teknikari bat, *le snifneur*, ibiltzea gainetik usainka, zirrikituak hauteman eta kola bereziz ixteko. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Hurbildu espetxeak, hasi

ABENDUKO Etxerateko txostena dio 606 euskal preso politiko direla 84 espetxetan sakabatuak, gehienak Espainian (445) eta Frantzian (134). Haien egoeran ez da berrikuntzarik eta etorkizunarekiko aurreikuspenean ere ez. Oraingoz, ETak bere jarduera armatua behinbetiko eten izanak ez du ageriko eraginik izan Espainiako Gobernuaren espetxe politikan: jarraitzen du presoaren egoeraren erabilera politikoarekin, mende-kuaren logikan, eta haien eta beraien senideen eskubideetako asko behin eta berriz urratzen. Egoera politikoa arras desberdina izan arren, laburpen hau azken 30 urtetan egin den edozein urtekoarekin pareka liteke.

Horrek esan nahi du espetxe politika gogor salatzen jarraitu behar dela, bai ikuspegi politikotik eta baita humanitariotik ere. Ezker abertzaleari bereziki, baina baita euskal gizarteari ere, gatazkatik geratu zaion ondarrerik latzena da gaur egun, eta nekez normalduko da erabat gizartea, hau eta, oro har, gatazkaren gainerako ondorioak bake prozesu adostu batean bideratu barik.

Datorren larunbatean berriz aterako da jendetza Bilboko kaleetara, eta hori izugarri garrantzitsua da, ezinbestekoa, baina ez nahikoa. Lehenik eta behin, egoera berria espetxeetan ere sentitzen has dadin nahi dutenek, horren alde modu bateratu batean egin beharko dute. Horrek, lehen urratsean, Bildu eta EAJren adostasun maila bat eskatzen du, egoera berrian zer eta nola defendatu litekeen adosteko. 1etik 10erako eskala batean, 6ko adostasunera oso erraz heldu daitezke, eta hori bera



urrats garrantzitsua litzateke fase honetan.

Azken finean, PPk sentitu behar du Euskal Herrian galdu egiten duela presoan gaiarekin berdin jarraituta. Lor dezake hori ezker abertzaleak bakarrik kaleko eta instituzioetako presioarekin? Ez. Lor dezake hori EAJk bere diplomaziarekin? Nekez. Ezta Bil-

Azken finean, PPk sentitu behar du Euskal Herrian galdu egiten duela presoan gaiarekin berdin jarraituta

duk eta EAJk batera ere, baina hori ezinbesteko urratsa da ondoren PSE/PSN eta beste sektore politiko eta sozialak bake prozesuaren gurdira igo daitezen.

Dagoeneko ez da amnistiaz hitz egiten, Espainiako lekeen interpretazio aldaketarekin egin daitekeenaz baizik. Datorren martxoaren 20an, esate batera, Parot doktrina dela eta, Ines del Rio presoaren alde emandako epaiari Espainiako Gobernuak jarritako helegitea aztertuko du Estrasburgoko Auziaren Areto Nagusiak. 70 bat presori eragin

die mendeku doktrina honek eta Espainiako Gobernuak aukera bikaina du norabide aldaketari ekiteko, —aurreikusten den gisan— Europako giza eskubideen auzitegi gorenak epaia berresten badu.

Hortik aurrera dena izan liteke desberdin, mantxo nahi bada, baina desberdin. Espainiako Gobernuak 200 preso inguru jar ditzake kalean, baka- rrik gainerako preso gehienekin egiten dena eginez, hau da, zigorraren bi herenak edo hiru laurdenak beteta izanagatik baldintzapeko egoeran kalean jarritz. Ez da lege aldaketarik behar lehen urratsean preso gehienak Madrildik gorako espetxeetara eramateko, edo hainbat preso gaixo larri baldintzapeko askatasunen jartzeko, edo Frantziari beste era batera jokatzeko baimena emanez...


Presoek ere eman beharko dituzte urrats gehiago, ezinbestean. Baina Presoen Kolektiboak dagoeneko bat egin du ETaren jarduera armatuaren etenarekin eta Gernikako Akordioarekin, eta horrek ate asko zabaltzen ditu pertsonalki ere presoek beste urrats batzuk eman ditzaten, adibidez Espainiako Zigor Kodearen 90. artikulua eskatzen dituen baldintzak bete daitezen. Ez gaitezen engaina, dena den, giltza Espainiako Gobernuarean esku dago.

Uneren batean hori guztia gertatzen hasi beharko da, euskal herritarrek gura duten bakea eta elkarbizitzarako urrats ezinbestekoa delako. Bitartean, instituzioetan eta mobilizazioetan, ahal den eta presio gehien egitea zilegi eta beharrezkoa da. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Besaro Landa Hotela

Bi gau
bi lagunentzat

Irakito oihanaren sarreran
Irigoien, 5
Itzaltzu NAFARROA

www.besaro.es

1



Beriain 19+2


Igoerak oinez, bizikletaz
eta eskaladak

5 liburuxka opari

Beriain NAFARROA

www.beriaimendia.com

2



euskara finlandiera HIZTEGIA

5 hiztegi opari

www.suomitar.org

3



Artez euskara zerbitzua

2013

5 aisiagenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2350. Argia)

ARBELAITZ jatetxea

• Mikel Sarriegi Etkezaretza (Beasain)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

• Eider Illarramendi Azkue (Zarautz)

• Iñigo Gogenola Bilbao (Berriatua)

• Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)

• Josu Aldama Larena Bitoriano (Zuia)

• Idoia Jauregi-arraburu Abasolo (Arrasate)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal-Zentro Museoa

• Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Bermeo)

• Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)

• Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

• Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)

EKAINBERRI

• Mikel Iriondo Eguren (Legazpi)

• Maritene Gonzalez Bilbao (Berango)

• Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)

• Karmele Señorena Arzadun (Donostia)

• Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

• Kari Lopez Davalillo Bañuelos (Galarreta)

EGUTEGIA

• Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)

• Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

• Begoña Munduate Aierdi (Ataun)

• Uxune Iriondo Urbiztazu (Getxo)

• Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

